DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

HIZKUNTZA ETA LINGUISTIKA PROGRAMA

MUNDAKAKO ARRANTZALEEN JAKINTZAREN LEXIKO ETA ENZIKLOPEDIA

Eneko Barrutia Etxebarriak aurkeztutako doktorego tesia.
Juan Manuel Etxebarria Ayesta Doktoreak zuzendua.

Zuzendariak: Doktoregaiak:



1. SARRERA

Tesi honen ibilbidea zelakoa izan den esan behar banu, euskal filologia amaitu nuen udan izan zuen bere hasikera. Ordurako eginda neuzkan grabaketak Bermion lehenengo eta Mundakan geroago aditza, deklinabidea eta abar batzeko. Neure asmoa izan zen Bermio eta Mundakako euskeren azterketa orokor bat egitea. Aukerak banituen, urteak dira udetan Mundakan egoten garena eta gurasoei zor dizkiet egineko ezaupide gehienak. Lexikoari heldukeran Azkueren hiztegiko Bermioko eta Mundakako berba denak apuntatu nituen zerrendak eginez, arrantzari zegokion atala egiteko mundu hori hur-hurretik bizi izan duen pertsona bategaz a jotea pentsatu nuen, hiztegia osotuteko beste barik. Dimasekin hori egiten hasi nintzenean saio bat edo bi egin beharrean aurrera egiteko parada ikusi nuen, baita arrazoiak ere. Mundu berri eta erakargarri batekin topo egitea izan zen, ikerketarako ateak ere zabal-zabalik zeuden, beste askori legez neurri handi baten Azkuegandik hona gutxi ikutu zaio arlo honi.

Tesi modura aurkeztuten bada ere ez da behar bat aurkeztu beharra eragilea izan, ikasteko gogoa eta horretarako euskararen gaineko ikerketetan dagoen premia baino.

Behar hau nonon sailkatzekotan, ereduari begira Xarles Videgainen *Le Vocabulaire de l'Elevage en Pays d'Oztibarre. Contribution aux Archives de l'Oralité Basque* doktorego tesia izan du aitzindari. Hura Iparraldekoa, hau Hegoaldekoa; hura abereen munduaren gainean, hau arrantzaren gainean. Berak tesian eta artikuluetan esana duenez, dialektologian eta lexikoarekin ihardukeran bereziki komunitate baten kultura darabilgu eskutan eta etnografia eta antropologian gaindi ibili behar da nahitaez.

Zelan aitatu ez Whorf eta Sapir-en heredentzia hizkuntzaren ikuspegi sakonago baten alde eta materialismo hutsaren kontra.

Helburua ez da izan hiztegia bakarrik jasotzea, izenburua azalduteko enziklopedia ez da ulertu behar lexikoa aztertuteko datu-baseko enziklopedia izeneko sarrera denik edo enziklopedi-hiztegi moduan, bere barruan bai corpusa, hiztegia, irudiak eta bestelako oharrak sartuko lirateke. Aurkezpenaren egitura honela izango da, gutxi gora behera: sarrera baten ondoren corpusa joango da, hiztegia ondoren eta irudiak azkenik.

Amaituteko kanpoko lanak egiteko larritasuna berriro gogoratu behar da, gaur atzo baino gehiago, bai lehentasuna aldarrikatu ere.

Mundakako euskarak urte txarrak ezagutu ditu, Euskal Herriko hainbeste herriren moduan, gaur egun berpiztuten eta burua altxaten dabil berriro, bide luze eta gaitz honetan ez ditzala galdu bere aberastasunak eta edertasuna.

2. HELBURUA

Behar honen helburua da arrantzako kulturaren azterketa etnolinguistikoa egitea, Mundakan oinarritua. Helburua ez da bakarrik hiztegia, gainerakoa (testuak, irudiak..) bere inguruan antolatuta badaude ere. Ez da ahaztu behar itsas-herrietan kultura orokorra neurri handi baten arrantza munduaren inguruan dabilela: esakeretan, kantetan eta abar.

Sarreran esan denez enziklopedia bat gura litzateke egin, etnografiarako eta berbak azaltzeko komenigarriak diren testuak, sarrera enziklopediko bat eukiko duen hiztegia, irudiak eta abar.

Ahozko euskararen altxorra gura izan dut aberastu, bide batez etorkizuneko hiztegietarako ere material berria ekarriz. Honetan Etxebarriak azaldutako ahozko hizkuntzaren gaineko kezka ere nire egin nahi nuke (Etxebarria, 1992). Azkuek erakutsi zuen hizkuntza idatzia eta ahozkoa osagarriak direla, elkarrekin uztartu daitezkeela, egin dezagun biak lantzeko ahalegina.

Helburu orokorra euskara hobeto ikastea litzateke, hurren daukagunetik hasita, hizkuntzarekin batera kultura ere geureganatu behar dugula ahaztu barik.

3 STATUS QUAESTIONIS

Bai etnografiaren aldetik egin diren beharrak eta bai linguistikakoak, biak erabili ditut nik neurea egiteko. Lehenengoetan, maila bateraino normala denez bestalde, linguistikaren aldetik batzutan alde ilun batzuk topa genitzake eta lantzean baten errakuntza batzuk ere bai. Alde ilunen artean berbak artikulu eta guzti ematearena aitatu daiteke, norengandik jasoa den ez esatea... Errakuntza nabariak ere badira: Bermion "ixurdijje" ematea "ixurdie"ren ordez, "tramaijjie" "tramaye"ren ordez eta abar.

Etnografiaren aldetik, bizimoduaz, arrantzako teknikez eta abar lan batzuk oso onak egin dira, Aingeru Astuiren artikuluak eta liburuak benetan fidagarriak dira eta nire lanak asko zor dio.

Linguistikan Azkueren hiztegia aitatu behar da lehenik, arrantzaleen hiztegia nahiko jaso zuen. Ez da ahaztu behar hiztegian gehien agertzen diren herriak Mundaka eta Lekeitio direla, lekeitiarra izanik ama mundakarra izan zuelako.

Garmendiaren *Diccionario Marítimo Ilustrado Castellano-Vasco, Vasco-Castellano* aitatu behar da gero, jatorrizko berben ondoan neologismoak ere topa daitezke, hiztegi handia da eta irudi asko dauzka inkestak egiteko sano baliagarriak izan daitezkeenak. Bera izan da gaiari monografia bat eskaini dion lehenengoetarikoa eta eskergarria da.

Esan daiteke linguistikan ez dela egin gai honetan kanpoko lan handirik, aipagarrienak dira Manuel Alvar-ren *Léxico de los marineros peninsulares* eta Xarles Videgainen *Atlas Linguistique des Côtes de l'Atlantique*-ntzat egineko galdeketa. Ikusten denez arlo honetan aurrea hartu digute kanpotarrek. Esan behar da Alvarrena ez dela Videgainena baizen fidagarria, nabariak dira transkripzio fonetikoan egineko errakuntzak eta abar.

Euki dudan ikerketa-ereduari begira aurrerago aitatuko Videgainen tesiaz gain behar etnolinguistikoen artean artikulu eder bi azpimarratu nahi nituzke nire ustez aitzindariak eta eredugarriak direlako, Jaione Ibarraren "Gariaren eta Artoaren Prozesoak eta Lexikoa Diman" eta Garbiñe Ibarraren "Ikatzaren prozesua Zeanurin". Gai baten inguruko testua edo narrazioa ematen da, baita testu hori bizkaiera batuaz zelan izango litzatekeen. Argazkiak aurkezten dira tresnak eta prozesuak erakutsiz, horren ondoren hiztegia ere ematen da ordena alfabetikoan. Beharbada hasieran asmoa linguistikako behar bat egitea zen arren, gaiak hala eskatuta, etnografiaranzko urratsa eman da, bien lotura eta oreka nire ustez bikaina da behar hauetan.

4. LEKUKOA

Dimas Zaldunbide Urrutia Mundakan jaio zen 1921. urteko ekainaren hiruan. Ama bermiotarra izan zuen eta aita mundakarra. Bere bizitzaren gorabehera batzuk, badauka zer kontatu-ta, 31. zintan irakur daitezke. Arrantzari dagokionean azpimarratutekoa da arrastako patroia izanikoa dela, arrastak arrantzaren barruan ezaugarri eta nortasun bereziak ditu, behar egiteko modua desberdina da, ibiltzeko kalak, baixuran baino arrain klase gehiago atrapaten dira eta abar. Arrastan ibilikoek jakiten dute baixurako arrantzaren berri ere, alderantziz nekezago gertatzen da. Merkantean ere ibilikoa da eta ondino udan Kanalauko tximinoiek ez dute eukitzen bake handirik.

4.1. DIMASEN EUSKARA

Ezer baino lehen esan gura dudana da Dimasen euskara ederra eta aberatsa dela. Orokorrean Mundakakoa dela esan badaiteke ere, badauzka bere eraginak. Hauek, berak ere hala aitortzen du, gehienak Bermiotik datozkio. Kontzientzi linguistiko onekoa da eta badaki ondo bereizten zeintzuk diren Mundakako berbak eta zeintzuk diren Bermioren eraginagaitik Mundakako erabileran apurka-apurka sartzen joan direnak.

Ondarrutik ere ibilia dugu eta, bere euskaran ezelango influentziarik nabaritu ez dudan arren, badakizki hango euskararen berba eta ezaugarri batzuk.

4.1.1. BOKAL HARMONIA

Mundakako euskarak ez du bokal harmoniarik, horretarako ikusi corpusaren lehenengo berbak. Hala ere Dimasek bokal harmoniaz egiten du berba gehienetan. Jon Kortazarren ia datu guztiak ere hala ageri dira. *i* eta *u* bokalek eragindako *a*ren itxidura litzateke:

ure, "ura" barik
gorridxe, "gorridxa" barik

Jatorriz ez badu ere badirudi arrantzaleen arte zabaldu dela edo mundakar batzuk jaso dutela eragin hori, alde horretatik, zelanbait, Mundakakoa ere izango litzateke. Kontuan hartzen badugu Bermiotik hurre dagoela, berarekin hartueman ugari izan direla eta Bermion euskara gehiago egiten izan dela Mundakan baino, normala dirudi holako eraginak eukiteak.

4.2. DIMAS ETA MUNDAKA

Aitortu behar dut nire hasierako asmoa Mundakako arrantzaleen hiztegiaren ikerketa egitea zela eta ez bakarrik pertsona edo idiolekto batena. Hala ere beharra egin ahala material nahikoa bilduta neukala-ta eta batez ere berri-emailearen aberastasun handia kontuan hartuta erabagi dut ondo merezi duela monografiko bat egitea, honek hasierako asmotik eta dialektologian orain arte gure artean nagusi izan diren erizpideetarik urruntzea eskatu didan arren.

Linguistikan eta etnografian planteiatzen den arazo nagusi bat lekuko baten jakintza edo erabileraren orokortasuna da, noraino allegatzen den tradiziotik datorrena eta non hasten den esperientzia pertsonaletik eta kanpoko eraginetarik jaso duena. Neure eritzia da Dimas Mundakako lekuko on bat dela, eraginak badauzka baia hauek ere arrantzako kulturaren ezaugarritzat hartu litezke.

5. INKESTATZAILEA

Ni neu bilbotarra naiz, bertan jaioa 1966. urtean. Euskal filologiako ikasketak egiten ari nintzela Bermioko eta Mundakako euskaren azterketa orokorra egiten hasi nintzen, inkestan bere euskaran berba egiten ahalegindu naiz neu ere, gehienbat Bermiokoa. Mundakan denboraldi luzeak egiteko aukera izan dugu. Lexikografian Labayru Ikastegiaren eskola hiztegian behar egiteko suertea izan nuen, hango orduei eta batez ere lagunei asko zor diet zeregin honetan.

5. BATU / IKERTU

Sarri irakurten da han eta hor kontrajarpen bat batzea eta ikertzearen artean, era okerrean neure eritziz. Hau gura izan da lotu linguistikaren zientziatasunaz gainera. On litzateke Popper-en berbak hona ekartea, filosofiarako dinoenak linguistikarako ere balioko luke:

> No existe una esencia de la filosofía, algo que pudiera destilarse y condensarse en una definición: todas las de la palabra "filosofía" podrán tener tan sólo el carácter de una convención, de un acuerdo; y, en todo caso, no veo mérito alguno en la propuesta arbitraria de definir dicha palabra de modo que impida a todo estudioso de la filosofía el que intente contribuir, *qua* filósofo, al avance de nuestro conocimiento del mundo. (Popper, 1990)

Zientziarekin ere gauza bera jazoten da:

> (...) siempre será un asunto a resolver por una convención o una decisión el de a qué cosa hemos de llamar una "ciencia" o el de a quién hemos de calificar de "científico".

Beraz, ez deritzot zuzena denik zientziaren definizio arbitrario baten oinarrituta linguistikako behar batzuk arbuiatzeari. Alan F. Chalmers-en berbetan:

> As will by now be clear, my own view is that there is no timeless and universal conception of science or scientific method which can serve the purposes exemplified in the previous paragraph. We do not have the resources to arrive at and defend such notions. We cannot legitimately defend or reject items of knowledge because they do or do not conform to some ready-made criterion of scientificity. (Chalmers, 1992)

Zoritxarrez sarri egiten da hori, kasu baterako behar bat datu bilketa soila dela esaten denean. Hori ezinezkoa da eta zientziaren filosofian gaindituta dago. Zientzia ez da hasten datuen bilketa batekin; Popper, Kuhn, Feyerabend eta beste asko bat datoz behaketa teoriaren menpekoa dela esateko orduan. Datuak, behaketak, teoria baten hizkuntzan adierazi behar dira; zentzua hartzen dute teoria baten argitan. Beraz, teoriak behaketa baino lehenago existitu behar badu, datu bilketa soila ezinezkoa da. Gure teoriek, gure kategoriek.. gidatzen gaituzte edozein errealitate aztertzeko orduan, eta gure "datuak" atzetik dauzkaten teoriak baizen dudazkoak izango dira.

7. DIALEKTOLOGIAZ

Dialektologiako lanetan berri-emaileak erizpide batzuen arauera aukeratzen dira, aztertu gura den herriko eredu on eta fidagarria emango duen jendea bilatzen da. Hau ziurtatzeko aita eta ama bertakoak izatea, eskolatua ez izatea, bertan bizi izana.. e. a. bezalako baldintzak jartzen dira. Baldintza hauek nahiko errezak izango lirateke betetzen Bermio, Lekeitio edo Ondarru bezalako herri handietan, baina auzune txiki batekoa gura bada egin, Arbolantxa auzokoa Begoñan edo Demikukoa Bermion kasu baterako, gerta liteke eskakizunak jaitsi behar izatea: ama bertakoa izan ezkero ontzat eman behar izatea lekuko bat adibidez. Erizpide aldaketak lortutako materialaren homogeneotasuna apurtuko luke neurri baten.

Batez ere atlas bati begira egineko beharretan herri bakoitzeko berri-emaile gutxi hartzen izan dira, bat edo bi sarri. Bistan da honelako lanen helburua ez dela azterketa soziolinguistiko bat egitea eta askotan aitatzen da monografien beharra atlasa allegatzen ez den eremuen berri emateko.

Aurreiritzi batekin jokatzen izan da orain arte: herri bat euskara bat. Beste modu batera esateko erizpide "administratiboa", zeozelan deitzearren, izan da gogoan eta ez erizpide linguistikoa. Herri baten euskara bat baino gehiago izan daitezke, baita auzune baten ere; edo kontrakoa ere izan liteke, herri batek edo auzune batek ez edukitzea sistema berezi bat.

> "la langue naturelle ne peut se manifester que sous une forme géographique diversifiée, comme le sont les groupes humains qui en usent: si chaque village n'a pas sa variété propre, du moins chaque vallée ou chaque canton possède sa norme dont il ou elle protège jalousement les caractéristiques" (Allieres, 104. orr.)

Arazo honen neurriaz jabetzeko esan dezagun kasu baterako ez dakigula Bizkaian, hurren daukadana imintearren, zenbat euskara "desberdin" dauzkagun. Ez Bizkaian bakarrik, Bermion ere ez. Egoera ideal baten komenigarria izango litzateke sistema hauek identifikatuta edukitzea aurretiaz, hola atlas batek herri baten euskara bi egiten badira nagusiena dena hartzea aukera lezake. Hau egiteko ez litzateke egongo beste modurik horretarako ikerketa berezi bat burutzea baino.

Monografia batek, atlas batek aztertzen ez duenean sartzen den neurrian, dialektologiatik aldendu gaitzake, azterketa soziolinguistiko bat egiten denean edo etnografian sakontzen duenean helburu nagusia ez da izaten erkaketa. Kasu batzutan dialektologiaren eta soziolinguistikaren azterketak aurkakoak izan litezke nolabait: gorago aitatu bezalako berri-emaileak aukeratzeko baldintzekin ziurta liteke euskara hori hangoa dela, baina herriko erabileran gailendu liteke jatorria beste nonbaitekoa duen bat, jende handia joan delako leku batera bizitzen edo.

Ahozko euskararen azterketa osoa orain arteko erizpideen gain utzi ezkero beste bekatu bat egingo litzateke, euskaldun on asko alde batera utzi behar genituzke geure lanetan. Hauetako asko ezin hobeak izan litezke lanbide baten lexikoa emateko. Holan, bada, idiolekto baten azterketa bezala aurkezten dut lan hau. Dena den, lehen esan bezala, neure eritziz Dimas Mundakako lekuko on eta fidagarri bat da.

Azkenik lekuko edo berri-emaile bat baino gehiago kontsultatzen direnean egokia deritzot bakoitzari kode bat emateari beti ere nork zer erantzun duen jakin ahal izateko. Desberdintasunak aztertueran ikusi liteke hauek lekukoen adinaren araberakoak diren edo zergatik eman daitekeen aldaketa hori. Inoiz berri-emaile bat fidagarria ez dela erabakiko bagenu berak emaneko informazio guztia lokaliza genezake eta ezabatu, salatzekoa da metodo hau gure artean ondino orokortua ez izana. Hau egiteko beharrik ez dut euki nik oraingoan.

8. CORPUSA

Corpusean zintetan grabatutako ia guztiaren transkripzioa agertuko da. Testuetatik egiten diren azterketetan, literaturan egiten direnak kasu baterako, corpusa aldez aurretik eukitzen da eta ikerketa hortik aurrera egin ohi da. Kasu honetan, berriz, bestelako azterketak egiteko iturri izateaz gain, corpusa bera da helburu nagusienetarik bat eta ez soilik abiapuntu.

9. HIZTEGIAREN EZAUGARRIAK

Hara hemen, banan banan, hiztegiaren ezaugarri nagusi batzuk:

9.1. Hiztegiaren muga

Ez zait egin erreza hiztegiaren sarreren aldetik corpusa ondo mugatzea. Arrantzaleen hiztegia gura izan dut egin eta ez herri bateko hiztegi orokorra, Mundaka edo Bermio itsas-herriak diren neurrian duten hiztegi berezia eta ez beste edozein herritan egin litekeena. Zalantza sor daiteke arrantzaleen hiztegiaren mugak zehaztueran, beste behar batzutan bezala: Garmendia (1970) eta Alvar (1985), zentzu zabal baten ulertutea hobeto da estu hartzea baino. Holan, bada, eguraldia lako eremu semantikoa kasu baterako ezin utziko litzateke kanpoan ezelan ere.

9.2. Aurkezpena

Aurkezpen nagusi bien artean: gaikakoa eta alfabetikoa, alfabetikoa aukeratu dut argiagoa iruditu zaidalako. Gaikakoak zailtasun gehiago dauzka, lexema batzuk arlo zehatzik barik lotuko zirela ikusten nuen eta

gaiaren ezagutza sakonagoa eskatzen du. Hala ere bide hori urratzeko asmoa daukat etorkizunean.

9.3. Elebitasuna

Gure herrietan elebakarrak gero eta gutxiago dira eta jende asko elebiduna izakeran erdera erabili daiteke galderak egiteko, itzulpenak eskatutea izaten da normalena. Nire helburua euskara da eta ez erdera, hala ere problema batzuk planteiatzen dira batzutan hizkuntza bien erabilerak eta funtzioak gurutzatu egiten direlako. Linguista moduan abiatuten bagara gorago aitatuko erabagia hartueran lekukoaren gaitasun linguistikoaren zati bat alde batera utzi dugu. Hau egiteko arrazoia da Mundakako jatorrizko hizkuntza euskara dela eta hizkuntza hori izan dela erabili dena arrantzako kulturan.

Hiztegiaren amaieran Dimasek corpusean erabilitako erderazko berben bilduma aurkeztuko dut, interesgarria ikusten dudalako zeintzuk berba ezagututen dituen ikustea eta zeintzuk diren euskarazko eta erderazko berben artean eginda dauzkan loturak aztertzea. Dena den inkestan ez naiz joan erderazko berben bila beren beregi.

Hemengo erdera berezia ere izan daiteke, jakinak dira beste erdera batzuekin dauzkan aldeak: "chipirón" guk, "calamar, jibión" beste batzuk; "chicharro" guk, "jurel" beste batzuk; "mojojón" guk, "mejillón" beste batzuk... Gipuzkoako erderan badirudi "mejillón" esaten dutela eta ez "mojojón", interesgarria da datu hori galderak erderaz gura badira egin edo beste barik ere.

Jone Arin eta Josune Arruabarrenaren Ataungo datuetan bezala erderazko esakera batzuk ere gehitu dira: sol y moscas; calma chicha; sol con barbas, mendebal con aguas.. Eurenean "Santa Lucía, se acorta la noche y se alarga el día"ren modukoak badira, euskarazko berbaldian agertuten baitira. Honetan ere herriko jakintza orokorra eta esperientzia pertsonaletik jasotakoa bereiztute'o arazoa daukagu.

9.4. Garbizalekeria

Garbizalekeriak ez dauka zerikusirik aukeraketarekin. Aukera daiteke arrantzakoa egitea edo nekazaritzakoa eta ez orokorra, euskarazkoa eta ez erderazkoa, baina epaile edo kritikari bihurtu barik. Zentzu honetan gogoratu Trench-en berbak, Osselton-en artikuluan aitatuak:

> A Dictionary... is an inventory of the language... It is not the task of the maker of it to select *good* words of the language. If he fancies that it is so, and begins to pick and choose, to leave this and take that, he will quickly go astray. The business which he has undertaken is to collect and arrange all the words, whether good or bad... which those

> writing in the language have employed. He is an historian of it, not a critic. (Trench, 1857, pp. 3-4) 20 or.

Garbizalekeriaren adibide bi aitatzekotan Azkue eta Toribio Etxebarria ekarriko nituzke. Euren sasoian ulergarriagoa zen garbizalekeria pitin hori ez dago guztiz gaindituta baia ez dauka zentzunik gaur egun. Hau irakurri dezakegu Toribio Etxebarriaren hiztegiko azkenengo berbetan:

> Si se tiene en cuenta que de los términos naturalizados sólo he recogido los referentes al comercio diario de la vida com n del pueblo de que se trata, y si no se olvida nuestra carencia de prejuicios para recurrir en la medida de nuestros conocimientos al acervo inagotable de los derivados de las lenguas clásicas y los neologismos de vigencia universal (...)

Ikusiko denez, hiztegi honetan sarrera bat onartuteko ez zaio begiratu etimologiari. Gaur eguneko garbizalekeriaren adibide batzuk hauek izango lirateke: 1. Euskalki guztietan *pagar, payer* esateko *pagatu* esaten da, salbuespenik gabe, *ordaindu* bultzatzen da hala ere. 2. Euskalki guztietan *voz "boz"* edo *"botz"* esaten da, "ahots" sartu da tradizio eta herri erabileraren kontra.

9.5. Enziklopedikoa (etnografia...)

Etnografiara linguistikatik heldu naizenez ia beti honen menpe agertuko da behar honetan. Dena den ikuspuntua kanbiatu dut hasikeran izan nuenetik eta gero eta etnografia hutsezko galdera gehiago egiten joan naiz, berben esanahia zehaztea helburu izan barik ere. Etnografiako beharretan objetibotasun bat bilatzen den arren hemen subjetibotasuna da nagusi, berri-emaileak dinoenean oinarritzen da guztia, berak gogoratzen duen moduan.

9.6. Toponimia

Toponimia hiztegi arruntetan ematen ez bada ere zelan ukatu lexikoaren atal bat denik, atal inportantea gainera. Aparteko hiztegia behar luke hala ere, datuen neurri ikaragarriak ez bait luke utziko hiztegi arrunta eta toponimiakoa batera aurkezten.

Ez dut uste nire kasu honetan, eta kanpoko antzeko beharretan ere berdin oro har, aukerakoa izan dudanik toponimia ikertutea edo ez, ezinbestekoa izan da eta bera barik arrantzaleen lexikoaren ikuspegia moztuta geratuko zen edo ez zen izango hain osoa behintzat. Eman diodan trataera, bestetik, hiztegi arruntarena berarena izan da gutxi gora behera. Geografo baten ikuspegia desberdina izango zen eta mapetan aurkezteak garrantzi gehiago eukiko zuen, nik ere honen behar izana autortu arren momentuz ez dut holako aurkezpen osorik egingo, batzuk bai hala ere:

berak egineko kalen mapa eta Mundakako Itsasadarreko toponimia, begiratu irudietan hauek.

Bibliografian artikulu desberdinak dagoz, euren artean azpimarratutekoak dira Jesus Urkidiren "Calas de los pescadores de Bermeo" eta Jon Kortazarren "Mundakako arrantzaleen kalak", informazio iturri aberatsak gertatu dira biak.

9.7. Beste herri batzutako berbak

Euren herriko berbez gain arrunta izan ohi da berri-emaileek beste herri batzutako berba batzuk jakitea, gehiago edo gutxiago. Nire ustez hauek ere jaso eta aztertu beharrekoak dira, euren gaitasun linguistikoari baitagozkio. Hauek, dena den, aparte aurkeztuko ditut eta besteetan baino xehetasun gutxiagorekin.

Hemen planteiatzen den arazorik nagusiena da jakitea noraino den orokorra herri horretan berba horren ezagutza eta noraino izan daitekeen bere esperientzia pertsonalagaitik ikasi duena.

9.8. Esaten ez dituen berbak

Ezezko datuak ematea ere beharrezkoa da, berba bat ez badaki hori ere adierazi behar da, hori egin ezean ez genuke jakingo inkestatzaileari itzuri zaion edo zergaitik agertuten ez den datu hori. Hala ere bere neurria dauka honek, interesgarria izan daiteke Bermion ez dela esaten "ulertu", ez hainbeste ez dela esaten "entelegatu".

10. TRANSKRIPZIOA

10.1. Inkestatzailearen transkripzioa

Transkripziorik zehatzena fonetikoa izango litzatekeen arren, hau ezinezkoa gertatzen da hain corpus handiarekin. Orain arte kanpoko lanetan egin diren transkripzio ereduak Barandiaranek bere etnografiako lanetan erabilitakoan oinarritu dira, egokitzapen batzuekin:

> En domaine basque, il n'existe pas de travail qui fournisse des règles de transcription et d'édition. Un modèle possible est celui de J. M. Barandiaran qui dans ses travaux ethnographiques ne soumet pas les textes à la norme de l'ortographe académique et dont je me suis inspiré partiellement. (Videgain 1989, 26. or.)

Berdin Gaminde (1989, 14. or.). Transkripzio mota hau batzutan "semifonetikoa" deitua izan da (Burgete eta Gaminde 1991, 12. orrialdean; "erdi-fonetikoa" Txillardegi 1984, 423. orrialdean Barandiaranen lanez ari

dela). Hauxe berau da neuk ere erabili dudana, kontuan hartu bedi ikertu dudan euskararen sistema fonetiko eta sistema fonologikoaren azterketa ondino egiteko dagoela. Izen bat eman behar banio "pertzepziozko transkripzioa" dela esango nuke eta nonbait kokatzekotan fonetikoaren aukera bat izango litzateke. Ez du erabiltzen alfabeto fonetikorik edo espektrogramarik, pertzepzio hutsez eta hizkuntzaren eguneroko alfabetoa erabiliz (gehiketaren batekin inoiz, *dx* kasu honetan) bereiztuteko gai den soinuak irudikatuten ahaleginduten da transkripzio fonetikoa balitz lez.

Transkripzio egiazkoago baten bidea fonetikak eskaintzen digu eta ez da dudarik hortik jotzen ahalegindu behar dena; dena den, hori aitortu arren, batzutan transkripzio fonetikoa "objetiboa" delako ustea dabilela ematen du, azken baten "interpretatu" behar ez den materiala balitz lez.

Ziurtasun maila batez transkribitzen ausartzen naizen euskara bakarrak Bermiokoa eta Mundakakoa dira, sistema zelanbait barneratu ondoren. Beste alde batetik transkripzio baten gauza asko ez dira entzuten, "ulertu" egiten dira. Honetan ere asko laguntzen du euskara horrekin luzaroan kontaktua eduki izanak.

Pertzepzioan subjetibotasunean jausteko arriskua daukagu. Videgainek kanpotik joandako inkestagilea bertako batekin berdintzera allega daitekeen arren (75-6 or.) pertzepzio maila honetan sekula ez dela erabat berdina esango nuke, azentuaren kasuan nabaria da baia ez horretan bakarrik.

Problema batzuk, denak ezin aipatuko nituzke, hauek izan dira: a/e bereiztea, ae/e, idx/dx, iñ/ñ, us/ux.. "Ux"en auzi honetan palatala etimologikoki justifikatzen da adibide batzutan: erd. mujarra = eusk. muxarra; erd. platija = eusk. platuxie. Baina beste batzutan etimologiak ezin du azaldu palatalaren agerpena: luxie, uxa.. Inork ez du esan orain arte, neuk dakidala, holakorik gertatzen denik inguruko fonetikan.

Ohizko ortografiari egin beharreko oharrak hauek dira:

1. dx = Azkuegandik hartu dut grafema hau:

> La D admite ciertas permutaciones (algunas indicadas ya) y sufre entre vocales muy generalizada supresión. Se transforma: a. en DD después de IN, IL, y en los diminutivos: INDDAR por INDAR, (..) b. en DX en Bermeo (B): INDXAR, BILDXUR, EIN DXOT. Es un matiz, grueso pero al fin matiz, de la permutación anterior. (195. or.)

> I, J, Y. Son las letras octava, novena y décima de nuestro alfabeto.
>
> SU EMPLEO
>
> Los diptongos que la letra I forma, al anteponerse a otras vocales, al principio de una palabra (IAKIN, IEZARRI, IIÑOK, IOKATU, IUZTURI), se pronuncian de cuatro distintas maneras, según los dialectos: YA, DXA, XA, y JA. (..) Dx interviene también

> como homogéneo de Y y de X entre una palabra terminada en I y una vocal que se le aglutine. Así se usa solo en B: GORRIDXA (B), GORRIXA (B), GORRIYA (G) (...)
>
> Hé aquí dónde se usan los cuatro sonidos homogéneos del diptongo inicial de I: (..) DX en B-b-d-l-mu-otx y Sc (376. or.)

Dx sarri erabilten izan da ordurik honako transkripzioetan ere eta alde horretatik ezaguna gertatzen da. Hala ere fonetik ki eta fonologikoki zehazteko dago ondino. Hurrerapen moduan badirudi gaurko alfabeto fonetikoa kontuan hartuta "dx" posizioaren arauera: sabai aurreko frikaria edo afrikatua izan daitekeela, gor-ozentasuna ere ikusi egin behar litzateke kasuan kasuko.

2. j = belare gorra edo ahoskabea.

3. y = erderazko grafema, erderaz duen balioa adierazteko.

Erderazko berba edo testua denean hizkuntza horren ortografia agertuko da.

10.2. Lekukoaren transkripzioa

Transkripzioa inkestatzaileak egin behar du, horretan ez dago dudarik. Zailtasunak asko eta asko izaten dira, argituteko lekukoari berari eskatu ahal zaio transkripzioa, berba soltuak gehienbat edo esaldi laburrak. Duda neukan berba batzutan Dimasi eskatu diot idazteko, beste batzutan silabak banan banan errepikatu ditu. Uste dut erabili daitekeen kasuetan teknika honekin emaitza on-onak jaso daitezkeela eta ez dela aprobetxatu orain arte. Hauek dira adibide batzuk, forma bakarra izango den arren ez du gura esan horrek ahoskera desberdinak ezin egon daitezkeenik:

aldinuek (duda neukan "aldianuek", "aldienuek", "aldi:nuek" eta "aldinuek" aukeren artean)
enjaretaua ("enjaretaue" edo "enjaetaue")
errindo ("errindo" edo "erriendo")
fondeaderua ("fondeaderue" edo "fondaderue")
titu ("ti(r)atu", "ti(r)etu", "ti:tu", "titu")
txalupa-etzia ("txalupa-etzie" edo "txalupetzie")

Uste ez den lekuan ezustekoak hartu daitezke: "iru illabete" edo "iru illebete"ren artean duda neukan eta "iru llebete" eman zuen *l* barik, esplizituki.

10.3. Azentua

Pertzepziozko transkripzioan azentua ere markatu behar da. Zorionez azentuaren gaineko ikerketak ugaritzen hasi dira gure artean: Txillardegi, Hualde eta Gaminderen eskutik batez ere. Ikusten denez gai gaitza eta alde asko dauzkana da, pertzepzio desberdinak egon daitezke, batez ere Hualdek deskribitutako doinu-azentuan.

Bermiotar baten pertzepzioa honelakoa izango litzateke hurrengo berbetan:

alabié, alabirí, alábak
etzerá, etzétik
Mundeká, Bermió, Bílbo

Hualdek eta Gamindek erakutsi dutenez azentu guztiak hauek izango lirateke:

alábié, alábirí, alábak
etzérá, etzétik
Mundéká, Bermío, Bílbo

Doinu-sistema ezagutzen ez duen baten pertzepzioa, neuk ere hasieran euki nuena, honela izango litzateke:

alábie, alábiri, alábak
etzéra, etzétik
Mundéka, Bermío, Bílbo

Euren pertzepziora hurreratu naizen arren ez dut menperatuten hau eta erabagi dut eurena eta nirea bat letorkeenean baino ez markatutea azentua, hau da, silaba bikoetan eta Txillardegiren arauerako berba markatuetan, lehenengo silaban azentua daukatenak:

abúx, adár, aidxén, aixé, kafié.. eta óllarra, pítxic, sóidxie..

11. METODOLOGIA

Ondoren zehaztuko diren metodoak gehienak Gotzon Aurrekoetxearen artikuluan era argian azaltzen direnak dira (Aurrekoetxea, 1986). Hauxe litzateke Gamindek ere hartzen duen oinarria (Gaminde, 1992b). Atlaserako metodologia azaltzen du, horrek desberdintasunen bat badakar ere oro har hor azaltzen dena denentzat da baliagarria. Béjoint-ek dinoenez metodoak bi dira funtsean, berak "observation" eta "elicitation" deituten dituena. Lehenengoa, behaketa, ahoskerarako erabilten ei da gehienbat. Hiztegirako

eta beste aztergai batzutarako galdeketak, metodo aktiboa da nagusi. (Béjoint, 1983, 68-9 or.).

11.1. Ezezko datuak

Nire ikerketa beharrean sarri erabili dut ezezko datuen teknika, gaurko beharretan gero eta normalagoa denez, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean ere holaxe jokatu dute Aurrekoetxeak dinoenez. Lekukoak erantzun bat eman ondoren beste aukera bat edo batzuk proposatzen zaizkio ezagunak zaizkion ikusteko eta bere eritzia eman dezan, emaitza aberatsak eskaintzen dituen metodoa da hau duda barik.

Lekukoaren lehenagoko erantzun baten ondoren planteiatzen bada ere aitortu behar dut, corpusean ikusi ahal izango denez, hasikerako edo lehenengo galdera bezala ere erabili dudala bide hau. Arrazoi desberdinak euki ditut hau honela egiteko, alde batetik gaitz ikusten nuelako bestela lortutea lexema bat, adibidez zelan esan eragin litekeen Anton Perezen liburuko "uxuxue dalakuen potorruek urten dosku". Batez ere holako esakerak erasoteari guztiz gaitz deritzot. Bestetik herri desberdinetan ibilkeran behar besteko astia ezin izan dudalako hartu batetik bestera transkripzio osoak egiteko eta abar. Azkenengo arrazoi bat erreferentzia moduan erabili nezakeen behar baten falta, daudenak baliagarriak izan zaizkidan arren ez dute ematen sarri definizio bat, erderazko izen bat baino. Behar honek balioko al du kostaldeko herrietarako oinarri hori iminten hemendik aurrerako ikerketetan.

11.2. Erderaz

Inkestatuak elebidunak direnean hizkuntza bat erabili daiteke itzulpenak eskatuteko, aukera hori erabili dut komenagarri ikusi dudanean.

11.3. Perifrasiak

Perifrasiak ere erabili dira, azalpen bat eman lexema lortzeko.

11.4. Azalpena eskatu

Hau baino egokiagoa alderantzizkoa izaten da sarri, lexema eman eta azalpena eskatu.

11.5. Testuak

Berba asko eta asko beren beregi bila joan barik agertuten dira, berba bat azalduteko beste berri batzuk agertu daitezke. Kopuru handi bat hola lortzen da. Hau Béjoint-ek aitatzen duen behaketarer metodoaren barruan sartuko litzateke, ez da lortzen hain gutxi berak dinoen bezala. Errefrau zaharrak dinoenez *berbeak berbea dakar.*

11.6. Irudiak

Liburuetako argazki eta irudiak erakusten izan dizkiot izenakaitik galdetzeko, batez ere biologiako atala egiteko baia ez horretarako bakarrik. Guztiz interesgarria da ez irudiak erakustea bakarrik, eurek egitea interesgarriagoa izan daiteke, alde horretatik nahiko suerte ona izan dut eta berak egineko irudi on eta polit batzuk aurkeztu ahal izango ditut.

12. LEXIKALIZAZIOAZ

Kasuistika izan daitekeena edo berba arrunta izan daitekeena bereizten ez da beti erreza. Behin entzundakoa nahikoa litzateke onartzeko eta hiztegian sarrera emateko? Horrelako adibide bat Ondarruko "en aquellos tiemposen" izango litzateke. Lehenengoz entzun nuenean ez nuen jakin lekuko horrek momentu horretan asmatutako zerbait zen ala Ondarrun erabilia zen. Beste egun baten beste lekuko bati entzun nionean ondorioa atera nuen horrek erabilera zuela Ondarrun, modu batekoa edo bestekoa, arrunta edo berezia izatea beste kontu bat da. Landauk dinoenez:

> A single citation proves very little, but even two citations from different kinds of publications may prove a great deal. They prove that it is not a "nonce word" - a term coined for a particular occasion. (Landau, 161. or.)

Gaitza da lexema guztiak zehaztea edo denei ohartzea. "An gorridxe!" edo "koblin bi" lakoek hasikeran ez dirudite forma lexikalizatuak, beste herri batzutako datuekin erkatuz konturatu ahal izan naiz badirela.

13. LEXEMEN MORFOLOGIA

Morfologiari dagokionean ez da nahikoa hiztegiko sarrerak emaneran mugagabeko forma bakarrik aurkeztea, euki ditzakeen jokabide bereziak ere azaldu behar dira:

> el diccionario debiera abundar en observaciones sobre plurales, femeninos, aumentativos, conjugación irregular, construcciones defectuosas, etc. (Fernández-Sevilla, 40. orr.)

13.1. DEKLINABIDEA

Deklinabidean arau orokorretatik kanpo lotzen diren prozesuak aurki ditzakegu. Corpusa aztertuz argitzeko arazorik handienak ondokoak izan litezke:

13.1.1. Artikulurik ez hartzea

Artikulu singularra berbari gehitukeran, amaiera zelakoa duen eta geografiaren arabera, aldaketa fonetiko desberdinak ematen dira. Gaur eguneko bizkaiera batuan eta beti aitatuten diren adibideak imintearren emaitzak hauek izango lirateke:

alaba + a = alabea; seme + a = semea; idi + a = idia; asto + a = astoa; lehengusu + a = lehengusua

Adibide hauek lehenengo hurreraketa baterako baliagarriak izan daitezke baina geroago ikusiko dugunez ez da dena argitzen eurekin. Jakina da *a* amaieradun berbetan bizkaierak ez duena beti *ea* egiten, senitarteko izen batzuk ez dute artikulurik hartzen: ama, aita, amoma, izeko, tio, tia.. Esan liteke beraz "ixeko bi dakus" eta "ixeko etor da". *Neba* berbarekin, berriz, ez zaigu holakorik agertzen eta nahiko orokorra da *nebie*, *nebea*.. esatea. Azken baten salbuespena gertatzen den artikulurik eza azaltzeko, bakarra ez den arren, esaten izan da izen propiotzat hartzen direla goiko berba horiek. Videgainek ere azalpen bera proposatzen du Iparraldeko datu batzutarako.

Bestelako salbuespenak ere badira: bokatibo batzutan, atsotitzetan.. e.a. Neuk jasotako hiztegian artikulu bako berba batzuk ez dira sartzen orain arte emandako azalpenetan. Kasu baterako:

erreklama - erreklama
erremanga - erremanga
ronpeolas - ronpeolas

13.1.2. Bukaera aldaketak

Berba batek era bateko jokabidea euki lezake deklinabidean eta konposizioan beste batekoa, batez ere elkarketako bigarren osagaia denean. Adibidez *kaka* berbak ez du artikulurik hartzen bizkaieraz eta **kakie* ez da esaten, baina elkarketan *marikaka-marikakie* egiten du (txori baten izena). Gauza bera gertatuko litzateke adibide hauetan ere:

galdu, baia "itxasogaldo - itxasogaldue"
ule - uliek, baia "betulek a." (Bermion)
urte - urtie, urtiek, baia "arrain-urta ona okiñdxu" (Bermion)

13.1.3. Bokal harmoniak eragineko itxurazko aldaketa

Mugagabean itxuraz *ez* amaitutako berbetan ziurtatu behar da ez dela bokal harmoniak eragindakoa izan. Gerta daiteke *e*duna iruditzea mugagabean baina berez *a*duna izatea eta deklinabidean halan jokatzen

jarraitzea. Adibide modura Bermiokoa ekarriko dut, deklinabidean honelako emaitzak izan ohi ditugu berbari artikulua eransten zaionean:

Sg.
alaba + a = alabie; seme + a = semie; idi + a = ididxe; asto + a = astue; mutiltxu + a = mutiltxue

Pl.
alabak, semiek, ididxek, astuek, mutiltxuek

Esango baligute Bermioko berba bat, *ixurde-ixurdie* kasu baterako, badirudi pluralean **ixurdiek* izan behar litzatekeela, baia ez da hola eta *ixurdek* esaten da. Berba berez da *ixurda*, Mundakan esaten den moduan, bokal harmoniagatik *e*duna dirudi baina bere jokabidean ikusten dugu *a*duna izaten segiduten duela. Bermioren kasuan mugatu pluralak eta inesibo singularrak eman diezagukete erantzuna. Inesiborako adibide bat *ude-udie* izango litzateke. Bermioko jokabide arrunta hau da:

orma + an = orman, etze + an = etzien, erri + an = erridxen, baso + an = basuen

Era berean *uden* esaten denean eta ez **udien* ondo ikus daiteke bokal harmoniak erazgindako bokala dena. Adibide honetan biak erabiltzen dira, bai *uden* eta bai *udien*, *udien* gazteen artean gehiago nire ustez, hauentzat hasieran itxura aldaketa izan dena erabatekoa bihurtu da. Kontu hau ondoko adibideek erakutsiko dutenez ez da marginala, berba askotan ematen da eta ondo kontuan euki behar izan dut. Bermioko adibide hauek nahikoa izango dira arazoaren neurriaz jabetzeko:

agurek, *aguriek
aiste - aistie, aistek; *aistiek
akule - akulie, akulek; *akuliek
alture - alturie, erd. "altura"
amude - amudie
angire - angirie
angule - angulie, erd. "angula"
ankille - ankillie
antxobille - antxobillie, antxobillek
arañe - arañie, erd. "araña"
ardure - ardurie
arraidxe - arraidxie, erd. "raya"
asarrakuntze
astille
bajure - bajurie, bajuren; *bajurien. Erderaz "bajura"
blankure - blankurie
botadure - botadurie, erd. "botadura"

botille, erd. "botella"
burle, erd. "burla"
driben, *dribien
dude, erd. "duda"
dxabonadure - dxabonadurek, *dxabonaduriek
dxoskure
elixe - elixie, elixek, *elixiek
ermitxe - ermitxie, erd. "ermita"
errefadure - errefadurie
erregiñe - erregiñie
errejille - errejillie
eskiñe - eskiñie
eskire - eskirie
estibe - estibie
etxure - etxurie
fabriken *fabrikien, erd. "fábrica"
frute - frutie, frutek; *frutiek
isle - islie, erd. "isla"
ixurde - ixurdie, ixurdek; *ixurdiek
junte - juntie, juntek; *juntiek
kaide - kaidie
kalenture - kalenturie
kargille - kargillie, kargillek; *kargilliek
kontrapunte
kostille - kostillie, kostillek; *kostilliek
kostunbrek, *kostunbriek. Erd. "costumbre" baia aduna litzateke Bermion
kosture - kosturie
kulpe - kulpie
lengusiñe - lengusiñie
lixe - lixie
loidxe - loidxie
makiniste - makinistie
makiñe - makiñie
malle - mallie, mallen; *mallien
mandxunge - mandxungie
maridxe - maridxie, maridxek; *maridxiek
mille - millek, *milliek
murtzille - murtzillie
muxille - muxillek, *muxilliek
parrille - parrillie
partille - partillie, partillek; *partilliek
peskadille - peskadillie, peskadillek
pikudie
pintxure - pintxurie, erd. "pintura"
plaidxe - plaidxie, erd. "playa"

platuxe - platuxie, erd. "platija"
posture - posturie
pregunte - preguntie, preguntek; *preguntiek
ruten, *rutien, erd. "(en) ruta"
saidxe - saidxie
saltxitxe - saltxitxie, saltxitxek; erd. salchicha
sardiñe - sardiñie, sardiñek; *sardiñiek; erd. sardina
sardite - sarditie, sarditek; *sardltiek
sartide - sartidie
senaidxe - senaidxie
sikuten, *sikutien
telarañek, *telarañiek
tiñe - tiñie
tire - tirie, tirek; *tiriek
tresmalle - tresmallie, tresmallek; *tresmalliek
tripe - tripie
trixe - trixie, trixek; *trixiek
txirlek, *txirliek. Mundakan "txirlak"
txistille - txistillie, txistillek; *txistilliek

Euskara batzutan deklinabideak ez digu ematen *e* hori berezkoa den jakiteko modurik.

Beraz bokal harmonia ematen denean lexikoaren gaineko inkesta egiten delarik kontuz ibili behar litzateke honelakoetan:

arkume - arkumea. Pluralean "arkumek" ala "arkumeak"?
aume - aumea. Pluralean "aumek" ala "aumeak"?

13.1.4. Forma bikoitzak

Batez ere hizkuntzan aldaketa bat eman denean, orduan belaunaldien araberakoa izan daiteke aldaketa, soziolinguistikoki neurtu beharrekoa.

kontragille a., kontragillie a. Erd. "quilla", berez *a*duna
lupin - lupiñe, lupiñie. Erd. "lubina"
parrotx - parrotxa, parrotxa - parrotxie. Hiztun berak bietara esan dezake
plai - plaidxe, plaidxe - plaidxie
uden, udien. Biak esaten dira Bermion.

13.1.5. Bestelako aldaketak

13.1.5.1. Saso - sasoye

Lekeitio, Markina, Elantxoben.. gertatzen da fenomeno bat beste herri batzutan mugagabean "-oi"z amaitutako berba batzutan, honela jokatuten da:

Lekeitio
patro - patroya
enbarkasiño - enbarkasiñoya
tximinño - tximiñoya

Bermio
patroi - patroye
enbarkasiño - enbarkasiñue
tximinñoi - tximiñoye

Ondarru
patroi - patroi
enbarkasiñoi - enbarkasiñoi

Hemen ez da nahikoa berba mugagabean lortutea deklinabidean bere jokabidea zein den jakiteko. "patro"tik *patrua ondorio okerra aterako baikenuke, pentsatuko bagenu asto - astua bezalakoa dela.

13.1.5.2. Guzti

"Gusti"ren deklinabidea herri askotan arrunta da: barri - barridxe, gusti - gustidxe (Bermio, Gernika..), alde batzutan, berriz, Eibar, Bergara, Markina (Prai Bartolome), Ondarru, Lekeitio (ez hainbeste beharbada).. *i* bukaeradun berbei dagokien eredutik aldenduten da. Datu hauek dauzkagu:

Eibar (Toribio Etxebarriaren hiztegitik)
afarixa, agirixa, aizkolarixa, alderdixa, barrixa, baserrixa eta holakoen ondoan *guztia* eta *guztia biarrekua* daukagu, *guztixa barik

Bergara (Bergarako Euskera liburutik)
333. orrialdeko testuan gorrixak, hegaztixa, barrixa, basarrixan, idixa, garixa eta abarren ondoan *guztiak*
346. orrialdeko testuan bixok, izugarrixa, barrixoi, egualdixa, gorrixak, zurixak.. baia *guztia*, *guztiak* eta *guztiakin*

Prai Bartolome
Olgueeta liburuan guichija, garbija, vitzija, jausija, dantzarijec.. baia guztia, guztiac, guztietaco.. e. a.

Ondarru

barrixe, gorrixe.. baia *makiña gusti* (= guztia), *egun gustin*

Lekeition

Lekeition ere "egun gustin" lakoak entzuten dira, beharbada Ondarrun baino gutxiago.

13.1.5.3. Gitxi

"Gitxi" ere honen antzeko beste salbuespen bat da. Orokorragoa da "gusti"rena baino:

sarri - sarridxau (= sarriago)

andi - andidxe, andidxau (= handiago)

gitxi - gitxidxe, gitxiau (= gitxiago), *gitxidxau ez da esaten, leku askotan behintzat. Zergaitik?

13.1.6. Deklinabidetik ateratako ondorioak

Artikulu ezaren arazorako eta bokal harmoniarako esan denak balio du probatzeko deklinabidearen nondik norakoen berri izan behar dela, ez dela nahikoa esatea mugagabeko forma *ixurde* da edo *marikaka*. Behin deklinabidearen nondik-norakoa jakin ezkero plantea liteke noraino den beharrezkoa mugagabe absolutua lortzea eta zein neurritaraino den zilegi, hau lortu barik, besterako datuetatik hau ondorioztatzea.

Ez dut uste inor egongo litzatekeenik mugagabearen kontua azken muturreraino eroatearen alde: behin aixe-aixie euki ezkero eta aztertzen den euskaran ziurtasun malla bat lortuta, badirudi "norteko aixie", "lesteko aixie" eta holakoak entzuneran ez gendukeela beste galderarik egin behar eta suposa genezakeela mugagabeak adibide bi horietan "*norteko aixe" eta "*lesteko aixe" izango liratekeela.

Dena den mugak beti ez lirateke berdin egongo, inkestatzailearen erizpidea nolakoa den.

Ondorioak aterateak bere arriskuak euki ditzake, ez da berdin "norteko aixie"tik "norteko aixe" suposatzea edo lehen bukaera aldaketetan aitatuko "itxasogaldue"tik "*itxasogaldu".

Hiztegian * ikurraz agertuko dira ateratako ondorioak, kasu baterako Ondarruko "*aberixa (aberixaik)", parentesi artean dagoen formatik ondorioztatua izan da aurrekoa.

13.2. *Egin*-dun aditzak

Fenomenoaren hedapena noraino allegatzen den ez dakidan arren *egin*-dun aditzak ezin lortu izan ditut huts-hutsik Bizkaian, "llorar" edo "reir" galdetuten izan dudanean "negar" eta "barre" izaten izan da erantzuna, eta ez "*barre egin" edo "*negar egin". Gorabehera honek ez du izan orain arte aipamenik ikerketetan.

Honelakoak *egin* parentesi artean dutela aurkeztuko dira: uger (egin)

14. DATU BASEA

Hiztegian eman ohi den informazioa eta Videgainen URRELEIZE datu basea kontuan hartuta (Videgain, 1989) neure eskema osotu dut ondoko aztergaiak eukiko dituena:

a. Lokalizazioa

Corpusean non aurkitu daitekeen jakiteko. Zinta adieraziko da zenbaki batez eta zintaren barruan A edo B aldean agertzen den. Lokalizazio bakarra eman dudanean ez du esan nahi derrigor behin baino ez dela agertzen lexema hori, azalpenik inportanteena non daukan zaintzen ahalegindu naiz behintzat. *Lok.* laburpena eroango du.

b. Kategoria

Zein kategoria gramatikalekoa den. Hauek bereiziuko dira:

iz. = izena
adj. = adjetiboa
ad. = aditza
adlag. = adizlaguna
e. = esakera eta esaldiak

Kategoriaren ondoren berarekin lotuta joan daitezkeen adjetiboak, aditzak eta abar paratu ditut batzutan. Kategoria desberdin bakoitzeko sarrera bat ematea erabaki dut argiagoa izango delakoan. *Kat.* laburdura eroango du.

c. Definizioa

Hau da denetan punturik korapilatsuena eta gaitzena. Landau-ek dinoenez hiztegietan talde berezi batek aurre egin behar dion zeregina da. Definizioak beti ere corpusean agertuten diren datuetarik atera gura izan ditut, lekukoak berak ematen dituen azalpenetarik. Hau nahiko zuzenean egitea ustez lortu ahal izan dudanean *D.* iminiko dut definizioaren aurretxuan, ondoren datorren erderazko berba berak esanekoa dela erakusteko edo gutxi gora-behera bere berbak direnean. Holakorik ez dagoenean libreagoa eta hain fidagarria ez izateko arriskua dauka.

Kontuan hartu bedi kanpo lanez egineko hiztegi bati, lekukoaren berbetan oinarritua, ezin eskatu dakiokeela batzutan bestelako hiztegietan aurkitu genezakeen besteko zehaztasunik eta perfektutasunik puntu honetan. Ez da ahaztu behar sarri konparazio eta adibideak ematen

dituztela eta ez dela pentsatu behar berarentzat hori derrigor definizio oso eta amaitu bat denik. *Def.* laburdura eroango du.

d. Enziklopedia

Etnografiako informazioa eta definizioetan ohizkoa izaten ez den bestelako informazioaren berri emateko sarrera da hau. Sarri aurrekoaren osagarri gertatuko da, ezinbestekoa batzutan. *Enz.* laburdura eroango du.

e. Zitazioak

Erabilera edo kontestu naturala erakusteko esaldiak batzen dira beharrezkoen ikusi denean edo ahal izan denean. *Zit.* laburdura eroango du.

f. Oharra

Edozein ohar edo duda azaltzeko izango da. *Oha.* laburdura eroango du.

g. Sinonimoa

Euki ditzakeen sinonimoak paratuko dira. *Sin.* laburdura eroango du.

h. Antonimoa

Euki ditzakeen antonimoak paratuko dira. *Ant.* laburdura eroango du.

i. Barietatea

Morfologiaren aldetik barianteak direnak, sinonimotzat eman beharrean. *Bar.* laburdura eroango du.

j. Beste herri batzutan

Kostako beste herri batzutan zelan esaten den iminiko dut konparatzeko. Denak ere neuk ezturiko adibideak izango dira. Hauek dira herriak:

Bermio = Ber.
Lekeitio = Lek.
Ondarru = Ond.

k. Dokumentazioa

Dokumentatzen den edo ez eta zelan gura izan dut aztertu. Sakonki egiteak luze joko luke eta Azkueren hiztegiarekin erkatu ondoren, ordurik aurrerakoen oinarria, indar gutxi geratu zait aurrera segiduteko bide

honetatik. Interesgarria da ikustea zeintzuk diren Azkuek bere hiztegian onartu zituen maileguak eta zeintzuk baztertu zituen, inciz "zuzenketa"ren bat edo berak eginekoari oharren bat egiteko balioko du. Honekin nire omenaldi apala gura diot egin maisu handiari.

15. MATERIALAK

15.1. Zintak

Zintak edo kasetak jatorrizko dokumentuak dira, ordubeteko 38 kaset dira, lehenengo biak SONY markakoak eta beste guztiak TDKkoak. Grabatzeko tresna SANYO txiki bat izan da, M1111 modeloa, bonelako beharrak egiteko bereziki pentsatua ez dena. Egokiena zintak ere aurkeztea litzateke baia geroko utziko dut.

Kasetak grabatu diren datak hauek izan dira:

1 = 17-9-89
2 = 23-9-89
3 = 23-3-90
4 = 5-4-90
5 = 5-4-90, 19-4-90
6 = 19-4-90
7 = 22-5-90
8 = 22-5-90, 4-7-90
9 = 4-7-90, 14-8-90
10 = 14-8-90
11 = 12-10-90
12 = 12-10-90, 9-12-90
13 = 9-12-90
14 = 9-12-90, 29-1-91
15 = 29-1-91
16 = 12-3-91
17 = 12-3-91
18 = 12-3-91, 9-4-91
19 = 9-4-91
20 = 30-4-91
21 = 30-4-91, 12-6-91
22 = 12-6-91
23 = 28-7-91
24 = 28-7-91, 7-9-91
25 = 7-9-91
26 = 7-9-91, 19-10-91
27 = 19-10-91
28 = 14-12-91
29 = 14-12-91, 20-2-92

30 = 20-2-92
31 = 20-2-92, 15-5-92
32 = 15-5-92, 27-6-92
33 = 27-6-92, 25-7-92
34 = 25-7-92
35 = 23-9-92
36 = 1-12-92
37 = 1-12-92, 15-12-92
38 = 15-12-92

15.2. Idatzia

Corpusari dagokionean gogoratu behar da material idatzia ez datorrela zintak ordezkatzera, bata bestearen osagarriak dira eta ez da pentsatu behar helburua transkripzioa edo idatzizkoa bakarrik denik.

15.3. Irudiak

Etnografoaren ametsa da berri-emaileak berak irudi on eta politak egitea, batez ere fidagarritasunari begira, suerte hori euki dut eta hara hemen irudi sorta polit hau, berben argigarri eta begien gozagarri.

16. BIOLOGIA

Ez da erreza izaten arrainen, txorien eta bestelakoen izen zientifikoak zehatz jakitea. Hauek lortuteko gidak erabili ditut, liburuetako argazki edo irudiak erakutsita euren izenak galdetu dizkiot eta gida desberdinetan erantzun bera ematen izan duenetan nahiko segurutzat edo eman dut. Sarri gertatu da, ordea, erantzun desberdinak jasotzea gida bat edo bestea erakutsita, bai irudi onak izan ez direlako, batzutan argia da irudien artean dagoen aldea ere, hemengo arrainak izan barik antza topa dielako edo bestelako arrazoiakaitik.

Hemen ere interesgarri ikusten dut datu guztiak ematea, ezagutu dituenak eta ez dituenak, denak agertutea.

Akabatzeko esan behar da, corpusean eta hiztegian ikusiko denez, ikaragarria izan dela espezie batzuen galera, lehen ugariak zirenak zelan urritu diren urte gutxitan. Daukaguna ondo jagon dezagun, bada, gehiago galdu barik.

Ondoren gidaren izena eta orrialdearen ondoren emaneko erantzunak doaz:

Euskal Herriko arrainak 2

Azala: barbafie ta lulek

11
myxine glutinosa = lanproyen antza
petromyzon marinus = lanproye, behekoa = aué

13
chlamydoselachus anguineus = ez

15
scyliorhinus stellaris = momie
Dok.: Azk. Branka-gaiñ (AN-ond), tabla provista de agujero en el centro, para meter en él el mástil de proa.

branka-musturre a.
Lok.: 3B, 7B, 17B, 27A
Kat.: iz.
Def.: "roda, roa".
Zit.: bertan branka-musturrin ibiltxen dxatzu olgetan (izurda)
Oha.: begitu irudietan
Ber.: branka-musturre a.
Dok.: Azk. -

brankapie a.
Lok.: 35A
Kat.: iz.
Def.: D. bertan musturraren azpian, kubertapea.
Enz.: D. belak eta brankapean egoten ziren.
Dok.: Azk. -

brankas
Lok.: 3B
Kat.: adlag.
Def.: "de proa".
Ber.: brankas
Ond.: brankas
Dok.: Azk. -

brasa - brasie
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "braza".
Ber.: brasa
Lek.: brasa
Ond.: brasa
Dok.: Azk. -

brasida - brasidie
Lok.: 36A, 38A
Kat.: iz.
Def.: D. esku-apaiuarekin zagozenean, arrainak tenten dizunean ematen zaion tirakada.
Dok.: Azk. -

ELANTXOBEKO BRASIDIE a.
Lok.: 36A
Kat.: iz.
Def.: zelan dagoen galdetueran sorbaldak altxatuz erantzuten duenaren mugimendua.
Dok.: Azk. -

brasie
Lok.: 11B, 24B
Kat.: ad.
Def.: brazak zenbatzea.
Ber.: brasie
Ond.: brasia
Dok.: Azk. -

bráso - brásuek
Lok.: 15B
Kat.: iz.
Def.: D. arrastako atearen gantxoak.
Sin.: gantxuek
Ond.: brasuk a.
Dok.: Azk. -

***brauntada - brauntadie**
Lok.: 16B, 36A
Kat.: iz.
Def.: izurdak azalean emoten duen golpea buztanaz arraina hondora botateko.
Enz.: D. nekatu direnean jaten hasten dira buztanarekin joten.
Ber.: brauntadie a.
Lek.: branparia a.
Dok.: Azk. -

brauntadaka
Lok.: 29A
Kat.: adlag.
Def.: brauntadak ematen.
Zit.: ixurdataus brauntadaka / da gero bustenas dxote bin brauntadaka, kantzate sinin dxaten brauntadaka ondora bótaten
Ber.: brauntadaka
Lek.: braunparaka
Ond.: frontaraka

breká - brekie
Lok.: 1B, 21B
Kat.: iz.
Def.: "breca".
Ber.: breká - brekie
Lek.: brekia a.
Ond.: breka - breki
Dok.: Azk. BREKA (B, G), breca, un pez de mar.

bridxanda - bridxandia, bridxandie
Lok.: 21A, 27B, 30A, 35B
Kat.: iz.
Def.: D. makallo arrainaren antzekoa, meheagoa da. Angiraren antza gehiago dauka abadejoak baino. Begi handiak dauzka, arrain gozoa.
Ber.: bridxandie a.
Dok.: Azk. BRIANDA (B-b), un pez, "lij" en Noruega.

brixaldi - brixaldidxe
Lok.: 36A
Kat.: iz.
Def.: D. "ráfaga" (de viento)
Dok.: Azk. -

broga - brogie
Lok.: 6B, 7B
Kat.: iz.
Def.: D. toleta doan errefortzua kaela ez gastateko abantean.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: broga - brógie
Lek.: txaplata - txaplatia, tolet-txaplatia
Dok.: Azk. BROGA (B-b), toletera, escalamera en las lanchas.

brus - brusá, brusé
Lok.: 11B, 12A
Kat.: iz.
Def.: "bruza, cepillo". D. azpia eta kuberta garbituteko izaten zen.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: brus - brusé
Lek.: eskobilla - eskobillia
Ond.: eskobilla - eskobilli
Dok.: Azk. -

BRUS BIGUNE a.
Lok.: 12A
Kat.: iz.
Def.: D. garratzaren ostean usaten zen bigunagoa.

BRUS GARRATZA a.
Lok.: 12A
Kat.: iz.
Def.: D. belarra eta kentzeko izaten zen.
Lek.: eskobilla garratza a.
Ond.: eskobilla garratza a.

BRUS GASA - BRUS GASIE
Lok.: 13B
Kat.: iz.
Def.: D. bruz biguna.
Lek.: eskobilla gasa a.
Ond.: eskobilla gosu a.

bu - bué
Lok.: 6A, 17B
Kat.: iz.
Def.: "bou".
Enz.: D. lehen kostadutik botaten zuten sarea beti, buak jeneralean estiborretik enbarkaten zuen arraina eta bakak baborretik. Burik orain egon ere ez dago.
Ber.: bué a.
Dok.: Azk. -

búidxa - búdxie
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "boya".
Ber.: búdxe
Ond.: buxa - buxak
Dok.: Azk. BUI 1º (B, G, L-côte), boya.

bujidxa - bujidxie
Lok.: 38A
Kat.: iz.
Def.: "bujía".
Dok.: Azk. -

bukól - bukoye
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: D. ura eroateko barrikak, edateko eta jatekoa egiteko.
Ber.: bukoi - bukoye
Dok.: Azk. -

burbín - burbiñe, ie
Lok.: 1B, 9B, 27A
Kat.: iz.
Def.: "corvina". D. buruzbeherakoaren antza dauka baia burbinak dauzkazu hogei, hogeitabost eta hogetamar kilokoak ere, handiak egoten dira.
Enz.: D. lehen kostan asko atrapaten zen, orain hori ere galdu egin da, gutxi ikusten da.
Ber.: burbín - burbiñe
Lek.: burbiña - burbiñia
Ond.: burbiña - burbiñi
Dok.: Azk. BURBIÑA (B-b-l-ond, G), curbina, pez de mar, muy sabroso, de ojos pequeños, escama roja.

burdiñetako dxaubie a.
Lok.: 17A, 22B
Kat.: iz.
Def.: D. makinistaren esakera moduko izena merkanteetan.
Ber.: burdiñetako dxauie a.
Dok.: Azk. -

burdiñetako morroyek a.
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: D. merkanteetan goikoek makinetan behar egiten dutenei ematen dieten izena.
Dok.: Azk. -

burloye a.
Lok.: 5B, 18A
Kat.: iz.
Def.: arrastako sarean hondoko kateetatik zakurartekoa.
Ber.: burloye a.
Dok.: Azk. -

burusberakue a.

Lok.: 1B, 9B, 21A, 27A
Kat.: iz.
Def.: D. tanborreroa. Batzuk burbinari ere esaten diote.
Enz.: D. lehen asko atrapaten zen hemen, orain bat ere ez.
Sin.: tanborrerue
Ber.: burusberakue a.
Dok.: Azk. -

buruto - burutua, burutue
Lok.: 2B, 10B, 23A
Kat.: iz.
Def.: D. brekaren berdin-berdina baia surzapalagoa da eta hagin zorrotzak dauzka. Gibela normala dauka.
Enz.: D. egunero ateraten dugu tximinoitan goazenean ere ezkirarekin. Atxina atrapaten ziren aritzunetan itsasoa egoten zenean, ze ostantzean baretan lulak ez dio isten jaten.
Dok.: Azk. BURUTU I° (B-b-mu), pez parecido a la lija, tiene el hígado muy grande.

búso - búsue
Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: "buzo".
Enz.: D. Talako mollaren musturra, neuk dakidala. bi edo hiru bider jausi da. Buzoa etorten zen zakuak eta iminten, hura zarratuten.
Dok.: Azk. -

D
defén!
Lok.: 12A
Kat.: ex.
Def.: defentsak botateko agindua.
Ber.: défen!
Dok.: Azk. DEPEN (B-l-ond), grito que se dirige al que viene en la proa de una lancha, para evitar un choque. Parece voz tomada de "defender".

defen (egin)
Lok.: 12A
Kat.: ad.
Def.: defentsak erabiltzea.
Zit.: ein defen or! / bota esatiles e defentzi defen eitxeko

Dok.: Azk. -

deféntzak a.
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "defensa". D. enbarkazioa ez marruskatzeko mollarekin edo beste enbarkazio batekin.
Enz.: D. orain arte beti erabili dira autoaren gurpilak. Orain hauek txikiek iminten dizkizute motorraren gurpil batzuk, beste batzuk defentsekin datoz fabrikatik. Normalean defentsak denak estiborrean egoten dira, atrakaten zara zu eta hurrengoa estiborreko mandara datorkizu.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: defentzie, defentzak a
Lek.: defensa - defensia
Ond.: defentzak a.
Dok.: Azk. -

denporale - denporalie
Lok.: 31B
Kat.: iz.
Def.: "temporal".
Lek.: denporalia a.
Ond.: denporali a.
Dok.: Azk. -

denporaltza
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "temporal".
Zit.: denporaltza gogorra dau
Ber.: denporaltzie a.
Ond.: denporaltzi a.
Dok.: Azk. -

***dentói - dentoye**
Lok.: 10B
Kat.: iz.
Def.: D. arrain gorria da. *Burutue* deituten diote.
Sin.: burutue
Dok.: Azk. -

derrót

Lok.: 14B, 32A
Kat.: iz.
Def.: "rumbo".
Zit.: derro baten dxuen / auntxeles derrotien
Oha.: corpusak ez digu ematen *errunbue* berbatik argi bereiztuteko modurik.
Ber.: derrota a.
Ond.: Ondarrun ez, *runbu* a.
Dok.: Azk. -

desá a.
Lok.: 6B, 35A
Kat.. iz., v.? Alanbra, txikota.
Def.: D. ezkerretara jota dagoen alanbra eskoitara egitea edo eskoitara eginda dagoen txikota ezkerretara egitea.
Oha.: adibideakaitik badirudi aditza dela baia *destu* ere badago eta hau izena izan daiteke.
Ber.: desá a.
Dok.: Azk. -

desapaidxe
Lok.: 22A
Kat.: ad.
Def.: D. kostera amaitu denean trasteak herrira eroatea ostabere.
Ber.: desapaidxe
Sin.: desarma
Dok.: Azk. -

desarma
Lok.: 22A
Kat.: ad.
Def.: D. kostera amaitu denean trasteak herrira eroatea ostabere.
Ber.: desarma
Sin.: desapaidxe
Dok.: Azk. -

desatraka
Lok.: 3A
Kat.: ad.
Def.: D. "desatracar". Mollatik zabaldu edo enbarkazio bi elkarrekin badagoz haren albotik zabaldu.
Ber.: desatraka
Ond.: sabaldu

Ant.: atraka
Dok.: Azk. -

desenbarka
Lok.: 31A, 31B
Kat.: ad. intr.
Def.: "desembarcar".
Ond.: desenbarka
Dok.: Azk. -

desenkarna
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: D. amuzkia kendu amuetatik.
Ber.: desenkarna
Ond.: desenkarna
Dok.: Azk. -

desetxo - desetxue
Lok.: 18B
Kat.: iz.
Def.: "mar arbolada". D. total gogorra dagoenean.
Enz.: D. tala gorarte egiten du itsasoak Mundakan.
Ber.: desetxue a.
Dok.: Azk. -

deskarga
Lok.: 11A
Kat.: ad.
Def.: "descargar". D. arraina atera.
Zit.: deskargan dausenien
Ber.: deskarga
Ond.: ustu, deskarga
Dok.: Azk. -

despatxa
Lok.: 11A
Kat.: ad.
Def.: bota.
Zit.: despatxata daku palangrie
Ber.: despatxa
Dok.: Azk. -

despeska
Lok.: 3A, 22A
Kat.: ad.
Def.: driba-sareetan mallata lotzen zen bokarta malletatik atera.
Enz.: D. arrain asko atrapaten zenean andrei deituten zitzaien, mollara edo elanbrara atera sareak eta han egoten ziren despeskaten.
Lek.: despiska
Ond.: despiska
Dok.: Azk. Despiska (B-l), destripar un pescado.

despeskan
Lok.: 3A, 33B
Kat.: adlag.
Def.: bokarta malletatik ateraten.
Ber.: despeskan

destú
Lok.: 35A
Kat.: ad.
Def.: desa egin.
Ber.: destú
Dok.: Azk. -

diaridxo
Lok.: 30B
Kat.: iz.
Def.: "diario".
Enz.: D. nik neuk eroaten nuen baia ez merkanteetan eroaten den moduan, inork agindu barik.
Ber.: diaridxue a.
Dok.: Azk. -

díke - díkie
Lok.: 11A
Kat.: iz.
Def.: "dique". D. enbarkazioa karenateko iminten duzun lekua.
Ber.: dike - díkie
Ond.: dike - diki
Dok.: Azk. -

dispara
Lok.: 23B

Kat.: ad.
Def.: "disparar".
Dok.: Azk. -

disparador - disparadora
Lok.: 30A
Kat.: iz.
Def.: "disparador". D. arrastan sarea erremorkan ekartekoa.
Dok.: Azk. -

distantzi - distantzidxak
Lok.: 12A, 14A
Kat.: iz.
Def.: "distancia".
Ber.: distantzidxe a.
Dok.: Azk. -

Domusantu eguna a.
Lok.: 27B
Kat.: iz.
Def.: D. "Todos los Santos", azaroaren batean.
Enz.: D. itsasora joaten da Mundakan, eta Bermion ere bai.
Dok.: Azk. Domun-Santuru, Domuru-Santuru (B), día de Todos los Santos.

dorada - doradie
Lok.: 35A
Kat.: iz.
Def.: "dorada", *sparus aurata*.
Sin.: urreburue
Ber.: dorada
Ond.: urreburo - urreburu
Dok.: Azk. Dorada (Bc, Gc), pez que persigue al volador.

dragá
Lok.: 25A
Kat.: ad.
Def.: "dragar".
Ber.: dragá
Ond.: draga
Dok.: Azk. -

dragá - dragie

Lok.: 12A, 24B, 25A, 27A
Kat.: iz.
Def.: "draga".
Enz.: D. portuaren barruan behin ezagutu dut, Euskal Erria izenekoa.
Ber.: dragie a.
Ond.: dragi a.
Dok.: Azk. -

***driba - dríbie**
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "deriva".
Ber.: dríbie a.
Dok.: Azk. -

driban
Lok.: 3A, 18A, 22A, 25A, 28B
Kat.: adlag.
Def.: D. "a la deriva".
Enz.: D. sarea bota eta algatean dago, musturretik iminten da txikota lotuta sarea, geldi eukiten da. Gutxi gora behera jakiten da non egoten den arraina, iluntzeetan ikusi ere bai azalean.
Ber.: dríben

dribie
Lok.: 28B
Kat.: ad.
Def.: D. algatean joan, dribindo korridu.
Dok.: Azk. -

dribindo
Lok.: 28B
Kat.: adlag.
Def.: D. algatean.
Ber.: dribindo

drixa - drixie
Lok.: 7A
Kat.: iz.
Def.: "driza".
Oha.: begitu "trixa".
Dok.: Azk. Driza (B-b, Gc), driza, cuerdas con que se izan las velas.

dungulu atako tzagu!
Lok.: 20B
Kat.: e.
Def.: arrain asko atrapako dela esateko esklamazio modura erabiltzen den esakera.
Sin.: masidxe atako tzagu, meladi atako tzagu
Ber.: dungulu atako tzagu!
Dok.: Azk. -

durdó - durdue
Lok.: 32A
Kat.: iz.
Def.: "maragota", *labrus bergylta*.
Ber.: durdói - durdoye
Lek.: durdua a.
Ond.: durdo - durdu

DURDUPAÑO ESPAN ANDIDXAUETAKOSU
Lok.: 32A
Kat.: e.
Def.: ezpain handiak dauzkanari esaten zaio.

durdói - durdoya
Lok.: 1B
Kat.: iz.
Def.: "maragota".
Oha.: *durdua* da Mundakakoa, *durdoye* Bermioko eraginagaitik erabiltzen du batzutan.
Dok.: Azk. DURDOI (B-l-mu), durdo, cierto pez de mar.

***durói - duroye**
Lok.: 19A, 34B
Kat.: iz.
Def.: tiburoia lako arrain handia.
Ber.: durói - duroye
Dok.: Azk. DUROI (B-b), tanlón, pez grande.

DX

dxakenarro - dxakenarrue
Lok.: 6B, 9B
Kat.: iz.
Def.: D. entzadoen jakea.
Ber.: dxakenarrue a.
Dok.: Azk. -

dxáki - dxákidxe 1.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: karnada.
Ber.: dxáki - dxákidxe
Dok.: Azk. -

dxáki - dxákidxe 2.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: D. bakoitzak bere tarteratxuan itsasora eroaten zuen jatekoa. Arinka nahi tortilla edo okela edo.
Dok.: Azk. Jaki 1º (c), vianda, cosa de comer.

dxat - dxatak
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "yate".
Ber.: dxatá - dxatak
Dok.: Azk. -

***dxatarrain - dxatarrañe**
Lok.: 26A, 27A
Kat.: iz.
Def.: D. kostako arraina: breka, tximinoia, kabra..
Ber.: dxatarrañe a.
Dok.: Azk. -

dxatarraintxen
Lok.: 26A
Kat.: adlag.
Def.: kostako arrainaren bila.
Zit.: nora sues? da dxatarraintxen
Dok.: Azk. -

dxaubé - dxaubie
Lok.: 19B
Kat.: iz.
Def.: "armador, dueño".
Sin.: armadorie
Dok.: Azk. JAUBE 1º (Bc), dueño.

dxiñé a.
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "cinc".
Ber.: dxiñé
Dok.: Azk. -

dxitú
Lok.: 32A
Kat.: ad.
Def.: "achicar".
Oha.: D. atxinako berba da.
Sin.: dxolatu, ure kendu
Dok.: Azk. -

dxo 1.
Lok.: 19P, 28A
Kat.: ad. Sarea, etxea, bela.
Def.: D. josi, amarra.
Zit.: belie dxoten denien, bergan
Ber.: dxo
Lek.: dxo
Dok.: Azk. -

dxo 2.
Lok.: 29A
Kat.: ad.
Def.: D. arribadan edo errekaladan sartu portu batera.
Zit.: se dxo sue ba? / lelau Basamendi dxote su
Oha.: Basamendiko adibideagaitik badirudi "allegatu" zentzua edo gehitu daitekeela definizioan.
Dok.: Azk. -

dxolatu
Lok.: 32A
Kat.: ad.

Def.: "achicar".
Oha.: atxina esaten zen, orain ez.
Sin.: dxitu, ure kendu
Dok.: Azk. -

dxosí
Lok.: 12A, 26A
Kat.: ad.
Def.: D. arraina engantxatea.
Zit.: arrañe dxosi dot
Ber.: dxosí
Dok.: Azk. -

dxosó - dxosue
Lok.: 29A
Kat.: iz.
Def.: D. haize asko dagoenean bueltaka-bueltaka doan haize zirimola.
Ber.: dxosue a.
Dok.: Azk. IOSO (B-b) 1º nubes de lluvia. 2º borrado, fuerza del viento que levanta agua del mar convirtiéndola en espuma.

dxosotan dau egualdidxe
Lok.: 29A
Kat.: e.
Def.: D. haize asko dago.
Ber.: dxosotan
Dok.: Azk. -

dxo ta tapá
Lok.: 29A
Kat.: ?
Def.: D. haizearen barrura zoazenean manejadarekin, zaparradak enbarkaten.
Ber.: dxo ta tapa
Dok.: Azk. -

dxu - dxué
Lok.: 12A, 28B
Kat.: iz.
Def.: D. itsaso handia.
Zit.: ño! dxu andidxe dau! / dxu gitxi dau
Ber.: dxué a.
Dok.: Azk. -

DZ

dzanga!
Lok.: 29A
Kat.: ex.
Def.: "onomatopeya de la zambullida".
Lek.: dzanga!
Ond.: dzanga!
Dok.: Azk. DZANGA (onomat.) 1º (B-l), zambullirse en el agua.

dzangadaka
Lok.: 29A
Kat.: adlag. Egon.
Def.: must egiten, kikumera egiten.
Zit.: da oten sin e ixurdak e, dzangadaka, dxaten
Sin.: dzangiuen
Dok.: Azk. Dzangada 1º (B-l), zambullimiento.

dzanga (egin)
Lok.: 29A
Kat.: ad.
Def.: "zambullirse".
Ond.: dzanga (egin)
Dok.: Azk. Dzanga egin (B-l), zambullirse.

dzangio - dzangiue, dxangiue
Lok.: 36A, 38A
Kat.: iz.
Def.: izurdaren dzangada.
Dok.: Azk. -

dzangiuen, dxangiuen
Lok.: 16B, 29A
Kat.: adlag.
Def.: D. izurdak must egiten arraina aterateko.
Sin.: dzangadaka
Lek.: dzangiuan
Ond.: dxangiuan
Dok.: Azk. -

dzartada
Lok.: 30A

Kat.: iz.
Def.: "destello de faro"
Enz.: D. Matxakuk dauka dzartada bat bost segunduko.
Ond.: sartari a.
Dok.: Azk. -

dzartadaka
Lok.: 13B
Kat.: adlag. Egon, joan.
Def.: D. bokarta dagoenean azalean burua agirian.
Dok.: Azk. -

E
edói - edoidxe
Lok.: 29B
Kat.: iz.
Def.: "nube".
Ond.: oroi - oroxe
Dok.: Azk. EDOI (AN-b, B-mu-tx, L), hedoi (BN-ald) 1º nube. 2º bruma.

edúr - edurre
Lok.: 15A
Kat.: iz.
Def.: D. neberan arrainari botaten zaion izotza.
Ber.: edúr
Dok.: Azk. -

egala, kálin egala a.
Lok.: 20B
Kat.: iz.
Def.: D. kalaren amaitukera, gero dator ur handia edo kantila.
Zit.: egal-egalin on gara
Oha.: bere lexikalizazioa ez da guztiz segurua.
Ber.: egala a. (kálin-)
Dok.: Azk. -

***egin**
Lok.: 26B, 29B
Kat.: ad. Harra, ezkira
Def.: "proveerse de".
Zit.: eskiri-txeko aruek / eskiri itxen san erridxuen / arra eitxen

Dok.: Azk. -

ego - egue
Lok.: 20B, 34B
Kat.: iz.
Def.: "aleta".
Ber.: egó
Ond.: ego - eguk
Dok.: Azk. EGO 5ª (Bc, G), aleta de peces.

égue a.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: "sur".
Ond.: egu a.
Dok.: Azk. Egoa (AN, BN, B, G), hegoa (BN, L, S), el sur, el viento del sur.

egualdi - egualdidxe
Lok.: 1A
Kat.: iz. Singularrean nahi pluralean erabiltzen da. Berarekin agertzen diren adjetiboak: kalma(k), barea(k), ona, ederra, normala, berdea, eskasa, santarra, txarra(k), gogorrak. Aditzak: egin, ondu, talaidxa.
Def.: "tiempo atmosférico".
Oha.: *denpora* berba ez da agertuten corpus osoan eguraldia esateko.
Ber.: egualdi - egualdidxe; denpora - denporie
Lek.: egualdi; denpora - denpona
Dok.: Azk. Eguraldi (AN-b-est-lar, Bc, BN, arc, G, Dechep.), tiempo, estado atmosférico.

egualdidxe Habana
Lok.: 3B
Kat.: iz.
Def.: D. bare eta eguraldi ederra.
Dok.: Azk. -

éguka
Lok.: 13B
Kat.: adlag. Joan.
Def.: D. heguaren barrura.
Ber.: éguke
Dok.: Azk. -

egune salba du
Lok.: 22A
Kat.: e.
Def.: arraintzu dezentea egin dela adierazteko esakera.
Ber.: egune salba du
Dok.: Azk. -

eguskidxe brilloso dator ba, eguaidi txarren eskie
Lok.: 20A
Kat.: e.
Dok.: Azk. -

éje - éjie
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "eje".
Ber.: éja - éjie
Ond.: eji a.
Dok.: Azk. -

LEMÍN ÉJIE a.
Lok.: 6B
Kat.: iz.
Def.: "eje del timón".
Ber.: lemín éjie a.

***elanbra - elanbrie**
Lok.: 2B, 17B
Kat.: iz.
Def.: "rampa".
Ber.: elanbra
Dok.: Azk. -

***elantxobetar - elantxobetarra**
Lok.: 28B
Kat.: iz.
Def.: D. bibitxoaren antzeko txoria.
Dok.: Azk. -

elást - elasta
Lok.: 8A, 12A, 24A
Kat.: iz.

Def.: D. "lastre".
Ber.: elasta a.
Dok.: Azk. -

elastien
Lok.: 8A
Kat.: adlag.
Def.: D. "vamos en lastre". Hutsik doanean enbarkazioa.
Ber.: elastien
Lek.: elastri(a)n
Dok.: Azk. -

elemento - elementuek
Lok.: 23B, 36B
Kat.: iz.
Def.: D. arrastako sarearen malletak eta alanbrak.
Dok.: Azk. -

eletrisistle a.
Lok.: 37B
Kat.: iz.
Def.: "electricista".
Dok.: Azk. -

elikotero - elikoterue
Lok.: 24B
Kat.: iz.
Def.: "helicóptero".
Enz.: D. atunero batzuk daroate atuna topateko
Ber.: elikoteruek a.
Dok.: Azk. -

élix - élixe
Lok.: 6A
Kat.: iz.
Def.: "hélice".
Enz.: D. atxina izurdekin gabiltzala bokartean pinta egiten ziren helizeak zuriz, bokartak ikusten hadu ikaratuteko eta trainera joateko.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: élix - élixe
Ond.: elixe a.
Dok.: Azk. -

enbarga
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: D. bela jo bergan, bela amarra bergan.
Dok.: Azk. -

enbarga - enbargie
Lok.: 7B, 8B, 11B, 25B
Kat.: iz.
Def.: D. belak eroaten ditu, bergari amarraten zaizkio.
Oha.: Jegitu irudietan
Ber.: enbarga
Dok.: Azk. -

enbarka 1.
Lok.: 30A, 31A, 31B
Kat.: ad. tr. eta intr. Tr.: sarea, traina, zakua, arraina, biberak, trasteak..
Def.: "embarcar(se)".
Zit.: *tr.:* atzetik enbarkaten dauie sarie / arrañe enbarkaten sarabarduas / enbarka dot besegue. *Intr.:* Bilbora dxuen dz enbarka naitxen polison / berrotamabi euskaldun enbarka giñen an
Ber.: enbarka
Lek.: enbarka
Ond.: enbarka
Dok.: Azk. -

enbarka 2.
Lok.: 31B
Kat.: ad.
Def.: dirua irabazi.
Zit.: asko enbarka dau
Dok.: Azk. -

enbarkaderue a.
Lok.: 24A
Kat.: iz.
Def.: "embarcadero".
Oha.: Mundakan ez dela esaten izan dino.
Dok.: Azk. -

enbarkasiño - enbarkasiñue
Lok.: edonon
Kat.: iz.
Def.: "embarcación".
Ber.: enbarkasiño - enbarkasiñue
Lek.: enbarkasiño - enbarkasiñoya
Ond.: enbarkasiñoi a.
Dok.: Azk. -

enbarke - enbarkie
Lok.: 20B, 31A
Kat.: iz.
Def.: "embarque".
Zit.: enbarke gitxi dauela
Sin.: plasa
Dok.: Azk. -

enbarra
Lok.: 11B, 30A, 30B
Kat.: ad. intr. Behin bakarrik agertu da transitibo modura ere, ikusi azkenengo adibidea.
Def.: D. arrastan hondoari heltzea.
Zit.: enbarra ein gara / enbarraten espasiñen / enbarrata gaus / an esta enbarraten ixen / ordun enbarra lei / enbarrate siñenien ba 'an en enbarra dot"
Ber.: enbarra
Ond.: enbarra
Dok.: Azk. -

enbarr ka
Lok.: 13b
Kat.: ad. intr.
Def.: D. "embarrancar", hondoa jo.
Sin.: ondu dxo
Ber.: enbarranka
Ond.: enbarranka
Dok.: Azk. -

enbarre - enbárriek, enbárrak
Lok.: 10B
Kat.: iz.
Def.: D. arrastan sareak hondoan topa ditzakeen kaskoa, abioia, harriak eta abar.

Ber.: enbarre - enbarrie
Dok.: Azk. -

enbraga
Lok.: 22A
Kat.: ad.
Def.: "embragar".
Zit.: enbraga, abante, edo enbraga atzera
Dok.: Azk. -

enbrage - enbragie
Lok.: 22A
Kat.: iz.
Def.: "embrague".
Ber.: enbragie a.
Dok.: Azk. -

enfila
Lok.: 4B
Kat.: ad.
Def.: "enfilar".
Zit.: Santamoro, au da, enfilata, Santa Eufemia..
Ber.: enfile
Lek.: *enfila
Dok.: Azk. -

***enfilasiño - enfilasiñuek**
Lok.: 14A
Kat.: iz.
Def.: "enfilación".
Ber.: enfilasiñue a.
Lek.: enfilasiñoya a.
Dok.: Azk. -

engrasadore - engrasadoriek
Lok.: 17A, 37B
Kat.: iz.
Def.: "engrasador".
Ond.: engrasadori a.
Dok.: Azk. -

engrilleta
Lok.: 11B

Kat.: ad.
Def.: "engrilletar".
Ber.: engrilleta
Ond.: engrilleta
Dok.: Azk. -

enjaretau - enjaretaue
Lok.: 13B, 33B
Kat.: iz.
Def.: D. trainaren azpian iminten dena, kuberta gainean imini beharrean.
Ber.: enjeretau - enjeretaue
Ond.: treñolak a.
Sin.: parrillie
Dok.: Azk. -

enkalla
Lok.: 12A
Kat.: ad.
Def.: "encallar". D. sikutan imini
Sin.: bara
Ber.: enkalle
Ond.: enkalla
Dok.: Azk. ENKAILLA 1ª (B, G), encallar.

enkapille
Lok.: 7A, 10B
Kat.: ad.
Def.: "encapillar". D. txikota sartu bitan.
Ber.: enkapille
Dok.: Azk. -

enkarna
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: "encarnar".
Sin.: plamie
Ant.: desenkarna
Lek.: enkarna
Ond.: enkarna, inkarna
Dok.: Azk. -

enkortxadure - enkortxadurie

Lok.: 16B
Kat.: iz.
Def.: "encorchadura".
Ond.: ez da esaten
Dok.: Azk. -

enpaka
Lok.: 27A, 28B
Kat.: ad.
Def.: D. upela baten edo lata baten imini arraina.
Ber.: enbaja
Ond.: enpaka
Dok.: Azk. -

enpaketa
Lok.: 8B, 9B
Kat.: ad.
Def.: "empaquetar".
Ber.: enpaketa
Dok.: Azk. -

enpaketadure - enpaketadurie
Lok.: 8B, 9B, 35B
Kat.: iz.
Def.: "empaquetadura". D. ardatza edo lemera enpaketateko eta orain bonbak ere bai. Kasu baterako helizeko bozinean ura edo badakar sartzen zaion tira bozinaren barruan urik ez sartzeko.
Enz.: D. atxina egoten zen baporentzat, barruan eukitzen zuen berauna, berotarako bastagoak eta egiteko.
Ber.: enpaketadurie a.
Dok.: Azk. -

enpaloma
Lok.: 7B
Kat.: ad.
Def.: "empalomar". D. bela josikeran txikotarekin iminten denean bela bera.
Ber.: enpaloma
Dok.: Azk. -

enpatxa 1.
Lok.: 10B, 30B
Kat.: ad.

Def.: D. apaiua nahastatea.
Ber.: enpatxa
Lek.: enpatxa
Ond.: enpatxa
Dok.: Azk. -

enpatxa 2.
Lok.: 32A
Kat.: ad.
Def.: "liar, enredar".
Zit.: nobidxotan edo enpatxata dauela
Dok.: Azk. -

enpatxo - enpatxue 1.
Lok.: 10B, 32A, 36A
Kat.: iz.
Def.: D. apaiuaren nahastea.
Ber.: enpatxo - enpatxue
Lek.: enpatxua a.
Ond.: enpatxu a.
Dok.: Azk. -

enpatxo - enpatxue 2.
Lok.: 31B
Kat.: iz. Arma.
Def.: "Ifo".
Zit.: enpatxu arma dau / niri es ekarri enpatxorik ona
Dok.: Azk. -

entabla
Lok.: 9B
Kat.: ad.
Def.: enbarkazioari ohola imini. D. lehenago armazoiak dira, gero hasten direnean zarratuten, hori da entablatea.
Zit.: entablaten asi gara
Ber.: entabla
Ond.: entabla
Dok.: Azk. -

***entablasiño - entablasiñue**
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: D. enbarkazioak daroan ohola eraiketatik.

Ber.: entablasiño - entablasiñue
Ond.: entablasiñoi a.
Dok.: Azk. -

entxaltxa
Lok.: 21B
Kat.: ad.
Def.: bela amarra, jo?
Dok.: Azk. -

entxaltxadura - entxaltxadurie
Lok.: 21B, 27B
Kat.: iz.
Def.: D. bela jota dagoena, amarrak. Sarean sendagarria egiten duena, etxeak.
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

entzado - entzadue
Lok.: 6B, 36A
Kat.: iz.
Def.: "encerados".
Ber.: entzadue a.
Lek.: entzerasko erropak a.
Ond.: siesko erropak, sisko erropi a.
Dok.: Azk. -

entzera
Lok.: 2B
Kat.: ad.
Def.: entzera egin.
Zit.: pali da, entzeraten den lekue
Ber.: entzera
Dok.: Azk. Entzera egin, atar.

entzera - entzerie
Lok.: 2B, 9B, 28A
Kat.: iz.
Def.: amuarentzako marapiloa.
Enz.: D. klase asko dagoz: pater nosterra da bat, hiru bueltakoak, bikoak..
Ber.: entzera - entzerie
Ond.: entzera

Dok.: Azk. ENTZERA 2º (B-mu, G-zumay), nudo especial para atar cordeles.

eresa - eresia
Lok.: 2A, 15B
Kat.: iz.
Def.: *ensis siliqua*. D. "muergos".
Lek.: kutxilla - kutxillua
Ond.: kutxillak a.
Dok.: Azk. EREZA (B-b-l), solen, marisco de mar de concha larga y blanca, se oculta bajo la arena, se saca a gancho y se come.

erlinga - erlingie, erlingak
Lok.: 7B, 20A
Kat.: iz. Emon.
Def.: belari iminten zaion txikota atesateko-ta, aurrean eroaten duena berga-burutik eta gantxora.
Enz.: D. belak eroaten ditu haize handia dagoenean bela txikituteko.
Ber.: erlingie a.
Lek.: erlengia a.
Dok.: Azk. ERLINGA (B-l), relinga, cuerda que tiene la vela a barlovento.

erlojo - erlojue
Lok.: 30B, 38A
Kat.: iz.
Def.: "reloj".
Enz.: D. gerrian eroaten zuen erlojua patroiak. Lehen erlojua eta konpasa, ez zen egoten besterik.
Ber.: erlojo - erlojue
Dok.: Azk. -

erlojo-arraña a.
Lok.: 19A
Kat.: iz.
Def.: arrain bat.

ermitañue a.
Lok.: 37A
Kat.: iz.
Def.: "ermitaño". D. karakol txikiek barruan eukitzen dutena.
Dok.: Azk. -

erpá - erpie
Lok.: 16B
Kat.: iz.
Def.: "brazos del pulpo" galderaren erantzuna.
Sin.: errue
Dok.: Azk. -

erramo - erramue
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: D. "remo".
Oha.: begitu irudietan
Ber.: erramue a.
Ond.: erramu a.
Dok.: Azk. -

ERRAMO NAGOSIDXE a.
Lok.: 35A
Kat.: iz.
Def.: D. patroiaren erramua. Handiagoa da besteak baino, pala zabalagoa.

erramutan
Lok.: 2B
Kat.: adlag. Ibili.
Def.: "a remo, remando".
Ber.: erramutan
Lek.: erremutan

erranbla
Lok.: 6B
Kat.: iz.
Def.: "rampa".
Bar.: elanbra
Dok.: Azk. -

errebixe - errebixek
Lok.: 20A
Kat.: iz.
Def.: bela nagusia txikitu eta amarratekoak haize gogorra egoten zenean.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: errebixe - errebixie

Lek.: errebixa
Ond.: errebixe a.
Dok.: Azk. -

errebolusiño - errebolusiñuek
Lok.: 38A
Kat.: iz.
Def.: "revolución". Mekanikan.
Ber.: errebolusiño
Dok.: Azk. -

erreborno - errebornue
Lok.: 15A, 27A
Kat.: iz.
Def.: "remolino". D. arrainak armaten duen mugimendua uretan.
Ber.: errebornue a.
Dok.: Azk. -

***erredera - errederie, errederak**
Lok.: 37B
Kat.: iz.
Def.: "redera". Sarea josten duten andrak.
Oha.: cf. saregillie
Dok.: Azk. -

***erredin - errediñe**
Lok.: 5A, 6B, 7A
Kat.: iz.
Def.: D. salabardoa lakoa baia txikitxua.
Enz.: D. bermiotarrek deituten diote atunetako karnada eta egiten dutenean biberoetarako, salabardo nagusiarekin barik erredinarekin enbarkaten dute.
Oha.: Mundakan *sarabardue* esaten da normalean, begitu irudietan.
Ber.: errediñe a.
Ond.: erregin - erregiñe
Dok.: Azk. -

erregatak a.
Lok.: 24B
Kat.: iz.
Def.: "regata".
Dok.: Azk. -

erregatiu - erregatiue
Lok.: 23B
Kat.: iz.
Def.: "regata".
Zit.: Mundeka ta Bermio erregatiuen dxuen da Bermiok atraba bala (Izaro)
Sin.: estropadie
Ber.: errebatiue a.
Dok.: Azk. -

errege - erregie, besegun erregie
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: "rey, palometa roja".
Sin.: papardo gorridxe
Ber.: erregie a.
Dok.: Azk. -

***erreka - errekie**
Lok.: 32B
Kat.: iz.
Def.: erreka. Itsasadarra esateko normalean *erridxue* esaten duen arren inoiz *errekie* ere esan du.
Zit.: Pedernaleseko errekie
Dok.: Azk. -

errekala
Lok.: 10B
Kat.: ad. tr.
Def.: D. hondoa jo ondoren altxa apaiua.
Zit.: errekala su?
Ber.: errekala
Dok.: Azk. -

errekaladan
Lok.: 29A
Kat.: adlag. Etorri.
Def.: D. kanpotik egunak eginda porturantz etortea.

errekalado - errekaladue
Lok.: 10B
Kat.: iz.
Def.: D. hondotik zenbat altxaten duzun apaiua.

Enz.: D. arrain batzutan hondoaren kontra, beste batzutan braza bete gorago edo braza bi beherago edo, lau braza gorago edo igual ur erdian ere.
Ber.: errekalado
Dok.: Azk. -

erreklama - erreklama
Lok.: 23A, 26B
Kat.: iz.
Def.: "reclame". D. bera palua baino oho! gogorragokoa da. Ziloa dauka, handik pasaten da ustaga.
Dok.: Azk. -

errekorta
Lok.: 38A
Kat.: ad.
Def.: gutxitu, geldirago imini makina.
Sin.: akorta, gitxitxu
Dok.: Azk. -

erremanga - erremanga
Lok.: 29B
Kat.: iz.
Def.: "remanga". D. ezkira egiteko sarabardoa.
Enz.: D. Mundakan neuk bakarrik egiten dut.
Dok.: Azk. -

errematin dxuen, bota
Lok.: 28B, 29B, 38A
Kat.: ad.
Def.: D. erkideak hasarratu eta euren artean subasta egin, enbarkazioa nork hartu.
Dok.: Azk. -

erramenta
Lok.: 22A
Kat.: ad.
Def.: "romper la ola".
Sin.: apurtu
Ber.: erramenta
Dok.: Azk. -

***erremolari - erremolaridxe**

Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "remero".
Sin.: abanlaridxe
Ber.: erremolari - erremolaridxe
Ond.: erremolaxe a.
Dok.: Azk. -

erremorka
Lok.: 17A
Kat.: ad.
Def.: "remolcar". D. "toar".
Ber.: erremolka
Ond.: erremorka
Dok.: Azk. -

erremorka a. 1.
Lok.: 36B
Kat.: iz.
Def.: "remolque". Zentzu orokorrean.
Zit.: dirue dakoye orrek, aberidxa badau ba erremorka pagateko / sosiedadi eiñdxe, erremorkantzako
Dok.: Azk. -

erremorka, erremorkako txikota a. 2.
Lok.: 33B, 36B
Kat.: iz.
Def.: erremorkako txikota.
Zit.: beste enbarkasiño bateri emoten batzasu seure erremorka
Ber.: erremorkako txikota a.
Ond.: erremorkako txikota a.
Dok.: Azk. -

ERREMORKA ARTUN BI TZAGU
Lok.: 22B
Kat.: e.

ERREMORKA EMON BI TZAGU
Lok.: 22B
Kat.: e.
Def.: aberiata dagoenak esaten du.

erremorkadora a.

Lok.: 33B
Kat.: iz.
Def.: "remolcador".
Ond.: erremorkadora a.

erremorkan
Lok.: 23B
Kat.: adlag. Eroan, ekarri, etorri.
Def.: "a remolque, remolcando".
Zit.: enbarkasiñue bádarusu erremorkan / enbarkasiño bi edo dakasus erremorkan
Ber.: erremolkan

errepara
Lok.: 37B
Kat.: ad.
Def.: "reparar, arreglar".
Sin.: arregla
Dok.: Azk. -

***erreparasiño - erreparasiñue**
Lok.: 26A, 29A
Kat.: iz.
Def.: "reparación".
Zit.: ona otorten di ba erreparasiñorako / errepa:siñun datosenin datos ona
Ond.: *erreparasiñoi
Dok.: Azk. -

errepujo - errepujue
Lok.: 8B, 10B, 17A, 25B
Kat.: iz.
Def.: D. bela-orratzari buruan sakateko erabiltzen zen erdian burdinazko zer bat zeukan narrua.
Ber.: errepujue a.
Dok.: Azk. -

erresaka - erresakie
Lok.: 9B, 15A, 17A
Kat.: iz.
Def.: "resaca".
Zit.: erresaka andidxe dau
Sin.: goraberie

Ber.: erresaka - erresakie
Ond.: erresaki a.
Dok.: Azk. Erresaka 1º (B, G), corriente, resaca.

***errí - erridxe**
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: kosta, herria.
Zit.: erridxe bistan dau
Dok.: Azk. -

BE-ÉRRIDXEK a.
Lok.: 13A
Kat.: iz.
Def.: beheko herriak: Santoña, Castro..
Ber.: beko erridxek a.

erria, errie 1.
Lok.: 6B
Kat.: ad. Belak, bandera..
Def.: "arriar".
Ber.: errie
Lek.: erria
Ond.: erria
Dok.: Azk. Erria (B, G), arriar.

erria, errie 2.
Lok.: 28A
Kat.: ad.
Def.: hil
Zit.: illdxe, erri tzo beren bururi
Dok.: Azk. -

erria, errie 3.
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: umea izan.
Ond.: Ondarrun ez
Dok.: Azk. -

erria, errie 4.
Lok.: 31B
Kat.: ad.

Def.: gauza bat itxi.
Zit.: setentan, ya, erri nauen, arrastie

erria en manda
Lok.: 28A
Kat.: ad.
Def.: D. erria.
Dok.: Azk. -

erribera
Lok.: 32A
Kat.: adlag.
Def.: asko eukitzea dirua.
Zit.: Abe Mari arek badxakok, erribera dxakok arek dirue
Dok.: Azk. -

erridxo-arrañe a.
Lok.: 26A, 33A
Kat.: iz.
Def.: "herrera", *lithognathus mormyrus*.
Enz.: D. errioko sarreretan eta atrapaten zen.
Ber.: erridxo-arrañe a.
Lek.: merikano - merikanua
Dok.: Azk. -

errifadura - errifadurie
Lok.: 7B, 26B
Kat.: iz.
Def.: D. enbarkazioaren itxura, erdi ingurutik aurrerantz dakarren aldatsa, goia.
Ber.: errefadure - errefadurie
Dok.: Azk. -

errindo
Lok.: 27A
Kat.: adlag.
Def.: "filando", erriaten. D. errunbo baten doa enbarkazioa.
Zit.: sus errindo apaidxue, errindo alanbrie ta ori
Lek.: erriendo
Ond.: Ondarrun ez
Dok.: Azk. -

errixadurak a.

Lok.: 8A, 25B
Kat.: iz. Hartu.
Def.: D. bela laburtuteko txikotxuak.
Dok.: Azk. -

errixe
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: D. bela txikitu errizadurekin.
Dok.: Azk. -

ERRIXE EIN BI DU TRIPIE
Lok.: 25B
Kat.: e.
Def.: D. "hay que apretar el cinturón".
Dok.: Azk. -

errixe - errixek
Lok.: 25B
Kat.: iz. Hartu.
Def.: D. bela laburtuteko txikotxuak.
Sin.: errixadurak
Ber.: errixek a.
Dok.: Azk. Erriz 1º (B, G), rizos de velas.

erró - errue
Lok.: 16B
Kat.: iz.
Def.: "tentáculos del pulpo, chipirón, etc."
Sin.: erpak
Ber.: errue a.
Ond.: erro - erruk
Dok.: Azk. ERRO 5º (Bc, G-zumay), tentáculos del pulpo, jibión, etc.

erromero
Lok.: 3A, 7B, 19A
Kat.: iz.
Def.: D. meroaren antz-antza dauka, askok igerri ere ez.
Enz.: D. urte baten ondo atrapa zen erromeroa baia gero hori galdu egin zen.
Ber.: erromerue a.
Dok.: Azk. Erromero (B-b-ond), remora, pez pequeño, muy lindo.

***errosidxo - errosidxue**
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "rocío". D. kasu baterako salta enbarkaziora eta txikotak eta tosta bustita egoten dira.
Enz.: D. terrel hotzak dagozenean egoten da hori.
Ber.: errosidxue a.
Dok.: Azk. -

errueda - erruedie
Lok.: 9B, 37B
Kat.: iz.
Def.: D. bolantea.
Enz.: D. lehen eskuko lema erabiltzen zen, orain ez, orain dena da errueda.
Dok.: Azk. -

errún - erruna
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: D. tostarik tostara dagoen lekua.
Ber.: errune a.
Dok.: Azk. ERRUN 2º (B-b-mu), manga, anchura de una embarcación.

errunbo - errunbue 1.
Lok.: 23B
Kat.: iz.
Def.: "rumbo".
Zit.: se errunbotan satos edo?
Ber.: errenbue a.
Dok.: Azk. -

errunbo - errunbue 2.
Lok.: 8A, 30A
Kat.: iz.
Def.: D. harriren bat jo duelako edo sikutan lotu denean harriren batek enbarkazioari oholean, azpian egineko ziloa.
Dok.: Azk. -

errutan
Lok.: 23B
Kat.: adlag.
Def.: "en ruta".

Zit.: topaten basan enbarkasiñue, kasu baterako arrasteru errutan
Dok.: Azk. -

eskala-gato - eskala-gatue
Lok.: 21B
Kat.: iz.
Def., Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

***eskama - eskamie**
Lok.: 2B, 8B
Kat.: iz.
Def.: "escama".
Ber.: eskama - eskamie
Ond.: eskami a.
Dok.: Azk. ESKAMA 2º (B, G), escama de peces.

***eskamada - eskamadie**
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: D. sarabardoa ibilikeran eta trainetik urteten duen arrainaren eskama sueltua.
Ber.: eskamadie a.
Dok.: Azk. -

eskamatu
Lok.: 25B
Kat.: ad.
Def.: D. eskama kentzea.
Ber.: eskamatu
Dok.: Azk. -

eskátz - eskatza
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "cocina".
Sin.: kosiñie
Dok.: Azk. Eskatz (Bc), cocina. (Contr. de ESKARATZ, 2º).

eskéi
Lok.: 10A, 22B
Kat.: ad.
Def.: "varar".

Zit.: enbarkasiñue nora darusu? da baraderora eskeitxen / enbarkasiñu eskeitxen gus aspidxek eitxeko
Sin.: bara
Ber.: eskéi
Dok.: Azk. -

eskillara - eskillarie
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: "escalera". Barrura igateko.
Dok.: Azk. -

eskilla-reala a.
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: "escala real". D. barandillekin iminten den eskilara.
Dok.: Azk. -

eskiñada - eskiñadie
Lok.: 4A, 12B, 21B, 23B
Kat.: iz.
Def.: D. harriaren eta arearen bitartea.
Enz.: D. eskinadetan breka, barbarina eta hotako arraina egoten da.
Dok.: Azk. -

eskira - eskirie
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: "quisquilla".
Ber.: eskire - eskirie, eskirek
Lek.: iskira - iskiria
Ond.: iskira - iskiri
Dok.: Azk. EZKIRA 1º (B-b-I), quisquilla, crangón, camarón, cierto crustáceo muy apreciado en las mesas como entremés.

ESKIRA BALTZA a.
Lok.: 4A
Kat.: iz.
Def.: D. harri tartean atrapaten da, azal gogorra dauka.
Ber.: eskire baltza a.
Dok.: Azk. -

ESKIRA GORRIDXE a.

Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: D. ez da kostakoa lakoa.
Enz.: D. azalean etorten da kanpotik, Caribetik edo, multzoan etorten da eta jakia da atunentzat eta baleentzat.
Ber.: eskire gorridxe a.
Lek.: iskira gorridxa a.
Ond.: iskira gorrixe a.
Dok.: Azk. -

ESKIRARRA a.
Lok.: 37A, 38A
Kat.: iz.
Def.: ezkira klase bat.
Dok.: Azk. -

ESKIRA SURIDXE a.
Lok.: 4A
Kat.: iz.
Def.: D. Mundakako itsasadarrean atrapaten da putzuetan Gernika alderditik, azala mehe-mehea dauka, karnadatako hobea da ezkira zuria beltza baino.
Ber.: eskire suridxe a.
Dok.: Azk. -

eskíretako áruek a.
Lok.: 15B
Kat.: iz.
Def.: ITSASOA enziklopediako lehenengo liburuan, 208. orrialdeko 16 zenbakidun irudiko "esquileros".
Enz.: D. arraina amarrata ateraten ditugu guk ezkirak hauekin.
Dok.: Azk. -

eskó eskue, eskoko txikota, eskuko txikota
Lok.: 5A, 6B, 14B
Kat.: iz.
Def.: D. trainaren atzerengo txikota, biradorera doana. Hogei edo hogeitabost metro edo eukitzen ditu.
Ber.: eskue a., eskoko txikota a.
Ond.: esku a.
Dok.: Azk. -

eskót - eskota

Lok.: 7B, 8B
Kat.: iz.
Def.: D. belak atzeko mandatik atesateko daukan txikota.
Enz.: D. popadan bazoaz erria egin behar da gehiago boltsa formateko eta ankerara joateko estutu egin behar duzu.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: eskota a.
Lek.: eskota a.
Ond.: eskota a.
Dok.: Azk. Eskota (Bc, G), escota, cierta cuerda de las lanchas.

eskotik (egin)
Lok.: 29B
Kat.: ad.
Def.: D. etxada egin eta atzetik eskapa arrainak.
Dok.: Azk. -

eskotilla
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: "escotilla", D. arraintxoetako eta baita neberetako sarrera ere.
Ber.: eskotillie a.
Ond.: eskotilli a.
Dok.: Azk. -

eskukera - eskukerie
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "tembladera", *torpedo marmorata*. D. elektrizitatea ematen duen arraia klasea.
Ber.: eskukera, eskokerie a.
Lek.: eskuikaria a.
Dok.: Azk. Eskuikara (B-b-l), torpedo, p.z que hace temblar a quien le toca.

eskuko farola a.
Lok.: 13B
Kat.: iz.
Def.: "farol de mano".
Enz.: D. orain usa ere ez da egiten.
Dok.: Azk. -

espadin - espadiña,e

Lok.: 34B, 37A
Kat.: iz.
Def.: D. arrain distiratsua, urrezuria lez dauka haragia.
Ber.: espadiñe a.
Dok.: Azk. -

espalda - espaldie
Lok.: 6B, 11B, 15A
Kat.: iz.
Def.: D. norbere atzea edo trainaren atzea.
Enz.: L. arraina espaldara badoa harriak botaten zaizkio handiko alderdira ikaratuteko.
Zit.: arrañe espaldati dator / arrañe espaldara due / espaldati dau
Ber.: espaldie a.
Dok.: Azk. -

esparbela a.
Lok.: 26B, 34A
Kat.: iz.
Def.: D. esku baten batuta lasunak eta atrapateko zabaletara botaten zen sarea.
Enz.: D. atxina-atxina usaten zen, nik ikusi dut hori Sevillako errioan ere bai.
Dok.: Azk. -

espardela a.
Lok.: 6A, 26B
Kat.: iz.
Def.: D. guardakolaren gainea.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: espardela a.
Ond.: espardela a.
Dok.: Azk. -

esparloi - esparloye
Lok.: 3A
Kat.: iz.
Def.: D. tiburoiaren antzekoa, handiagoa, lepoko espita handia dauka.
Enz.: D. atunetan sarri egiten zuen atuna alaten egon, heldu eta bera eroan.
Ber.: esparloi - esparloye
Lek.: esperloya a.
Ond.: esperloi a.

Dok.: Azk. ESPARLOI (B-b-l), esparroi (B-ond, G), pez espada que persigue a los toninos o delfines, tiene la mandíbula superior en forma de espada con dos cortes.

esperan
Lok.: 35A
Kat.: adlag.
Def.: kofradtan argi berdea egoten zenean itxaroten urteteko edo ez.
Dok.: Azk. -

espitxa - espitxie 1.
Lok.: 3B, 19A
Kat.: iz.
Def.: D. kasu baterako untze batek irteten badu zorroztuten den ohol zatia untzeak irten duen lekutik sartzeko.
Ber.: espitxe - espitxie
Dok.: Azk. -

espitxa - espitxie 2.
Lok.: 32A, 34B
Kat.: iz.
Def.: "espina exterior".
Sin.: sue
Lek.: espi - espidxa
Ond.: espi - espixe
Dok.: Azk. -

espitxa - espitxie 3.
Lok.: 32A
Kat.: adj.
Def.: D. edozertan sartzen diren andrak.
Sin.: gardie, arrain santarra
Dok.: Azk. -

esprin - espriñe
Lok.: 36B
Kat.: iz.
Def.: D. amarrata zagozenean mollan atzea zabalduteko ematen den txikota.
Ond.: esprin - espriñe
Dok.: Azk. -

estaidxe a.

Lok.: 11B, 20A
Kat.: iz.
Def.: "estay".
Oha.: D. merkantean esaten da, hemen ez. Begitu irudietan.
Sin.: gartxidxek
Ber.: éstaidxe a.
Lek.: estaidxa a., estaidxak a.
Dok.: Azk. ESTAIA 1ª (B-l, Gc), obenques, cuerdas con que se levantan y bajan los mástiles.

estatxa - estatxie
Lok.: 7A, 21B
Kat.: iz.
Def.: "estacha". D. fondo emoten dena enbarkazio txikietan, mehea. Merkanteetan estatxa txikot lodiagoa da amarrateko.
Oha.: cf. kalaborta, begitu irudietan.
Ber.: estatxa - estatxie
Lek.: estatxa - estatxia
Ond.: estatxi a.
Dok.: Azk. Estatxa (AN-ond, B-b, G-don), estacha, cuerda delgada de que se sirven los pescadores en sus faenas.

estiba
Lok.: 24A, 31B
Kat.: ad.
Def.: "estibar".
Ber.: estibe
Ond.: estiba
Dok.: Azk. -

***estiba - estibie**
Lok.: 24A
Kat.; iz.
Def.: "estiba".
Ber.: estibie a.
Dok.: Azk. -

estiborra a.
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "estribor".
Ber.: estiborra a.
Ond.: estiborra a.

Dok.: Azk. -

estopa
Lok.: 9B
Kat.: ad.
Def.: ohol bitarteetan estopa sartu.
Ber.: estopa
Dok.: Azk. -

estopa - estopie
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: D. ohol bitarteetan sartuta dagozen zintak. Klase bik›ak dira: bat da kotoiaren antzekoa eta bestea da kalamua edo lihoa edo halakoa, alkitranaz dago hori galafatiata enbarkazio guztia
Ber.: estopie a.
Ond.: estopi a.
Dok.: Azk. -

***estopi etxa**
Lok.: 9B
Kat.: ad.
Def.: D. saltoren baten, golperen baten estopa botatea.
Ber.: estopi etxa
Dok.: Azk. -

***estrameridiana - estrameridianie**
Lok.: 30B
Kat.: iz.
Def.: D. eguzkia bere zenitetik pasata dagoenean hartzen den altura
Dok.: Azk. -

estrapo - estrapue
Lok.: 5A, 6B, 7B
Kat.: iz.
Def.: "estrobo". D. toletean erramua sartzeko kalamuzkoa
Oha.: begitu irudietan
Ber.: estrapo - estrapue
Lek.: estrepo - estrepua
Ond.: estrapu a.
Dok.: Azk. Estrepo (B-b-l), estrovo, rosca que sujeta el remo al escálamo.

estrella - itxasoko estrellak
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "estrella de mar".
Enz.: D. haitzetan egoten ziren.
Ber.: estrellie a.
Dok.: Azk. -

estropada - estropadie
Lok.: 23B
Kat.: iz.
Def.: "regata".
Sin.: erregatiue
Ber.: estropadie a.
Ond.: estropadak a.
Dok.: Azk. -

etxada - etxadie
Lok.: 22B, 30A
Kat.: iz.
Def.: "echada, largada".
Zit.: lau etxada eingus
Ber.: etxada - etxadie
Lek.: etxarak a.
Ond.: etxara - etxari
Dok.: Azk. -

ÉRETAKO ETXADIE a.
Lok.: 33B
Kat.: iz.
Def.: D. baborra haizera iminten den etxada.
Ber.: ératako etxadie a.

KóNTRAKO ETXADIE a.
Lok.: 33B
Kat.: iz.
Def.: D. haizea estiborretik iminten den etxada.

etxadan
Lok.: 23B
Kat.: adlag. Joan.
Def.: sarea botaten
Dok.: Azk. -

etzé - etziek
Lok.: 16B, 19B, 27B
Kat.: iz.
Def.: mallak, sarea txikotean jota dagoen puntu biren tartea?
Enz.: D. batzuk joten dute lau etxerik lau etxera kortxoa.
Ber.: ertxé - ertxiek
Dok.: Azk. -

etzien
Lok.: 28B
Kat.: adlag.
Def.: portuan, etxean.
Ond.: etxin
Dok.: Azk. -

***etzegun - etzegune**
Lok.: 23B, 28B, 35A
Kat.: iz.
Def.: itsasora urteten ez den eguna.
Ber.: etzegune a.
Lek.: etxeun - etxeuna, etxeguna
Ond.: ez da esaten
Dok.: Azk. -

etzegune (egin)
Lok.: 23B
Kat.: ad.
Def.: etxean lotu, itsasora urten ez.

eurí - euridxe
Lok.: 5A
Kat.: iz.
Def.: "lluvia".
Ond.: eurixe a.
Dok.: Azk. EURI 1º (AN, B, BN, G, R, S), lluvia.

eurí-lánburre a.
Lok.: 34A
Kat.: iz.
Def.: "llovizna".
Ond.: euri-lanburre a.
Dok.: Azk. Euri-landur (B-mu), llovizna.

euri-lañue a.
Lok.: 22B
Kat.: iz.
Def.: euria dakarten lainoak?
Sin.: euri-sartie
Ber.: euri-lañuek a.
Dok.: Azk. -

euri-sarta - euri-sartie,ak
Lok.: 16B, 22B
Kat.: iz.
Def.: D. arraia formadun lainoak.
Dok.: Azk. -

euri-sirixe a.
Lok.: 34A
Kat.: iz.
Def.: "llovizna".
Ond.: euri-lantxe a.
Dok.: Azk. euri-zirin (B-l-m), llovizna

euri-truxo - euri-truxuek
Lok.: 34A
Kat.: iz.
Def.: D. euri asko denean, zaparrada gogorrak.
Zit.: joe! olako euri-truxurik!
Ond.: euri-truxuk a.
Dok.: Azk. TRUIXU (B), lluvia fuerte. ¡ONEK DIRA EURI-TRUIXU EDERRAK! (B-mu)

éutzo!
Lok.: 3B
Kat.: ex.
Def.: kazan arrainak heldu duela patroiari jakin erazteko botaten den oihua.
Ber.: éutzo!
Lek.: eta!
Ond.: deutze!
Sin.: Jesus!
Dok.: Azk. -

éutzo ámue!

Lok.: 28B
Kat.: ex.
Def.: izorra hadi!
Dok.: Azk. -

F

fája - fájie
Lok.: 17A, 22A, 22B
Kat.: iz.
Def.: patentea eta pinturaren bitarteko lerro zuria, atzeratie doa buelta guztian.
Sin.: sintxie
Ber.: fája - fájie
Dok.: Azk. -

falsa-bosa - falsa-bosie
Lok.: 6B
Kat.: iz.
Def.: "falsa boza". D. arrastan ateak daroa, txikota da kate zati batekin dagocna malleta trinkateko.
Dok.: Azk. -

***falta (faltatie)**
Lok.: 12A
Kat.: ad. Txikotak, kateak
Def.: "faltar, ceder cuerdas, cadenas.."
Ber.: falta
Lek.: palta
Dok.: Azk. -

fárdo - fárduek
Lok.: 13B
Kat.: iz.
Def.: "fardo, bala".
Sin.: balak
Ber.: fárdo - fárdue
Dok.: Azk. -

farola s.
Lok.: 22B, 35A
Kat.: iz.
Def.: "faro".

Ber.: faról - farola
Dok.: Azk. -

férri - férridxe
Lok.: 21B
Kat.: iz.
Def.: "ferry".
Dok.: Azk. -

fila
Lok.: 6B
Kat.: ad.
Def.: D. artez eroan enbarkazioa. Arrastan ateak zabalduten duenean sarea, aurduan egiten da fila.
Sin.: artes eruen
Ber.: enfile
Dok.: Azk. -

firme!
Lok.: 23B, 27A
Kat.: ex.
Def.: kontramaisuak esaten diona patroiari elementu guztiak firme dagozenean, erriata dagozenean.
Ond.: firme!
Dok.: Azk. -

firme (egin)
Lok.: 23B, 36A
Kat.: ad.
Def.: D. arrastan elementu guztiak erria direnean makinillan egiten duzu frena eta ja firme elementuak.
Dok.: Azk. -

fléta
Lok.: 13B
Kat.: ad.
Def.: D. enbarkazioa alokatu.
Dok.: Azk. -

flet - fletá
Lok.: 32A, 34A
Kat.: iz.
Def.: "flete". D. merkantekoa da.

Ond.: fleta a.
Dok.: Azk. -

flóta
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "flota".
Zit.: Bermion flota andidxe dau
Ber.: flóta
Dok.: Azk. -

flotán
Lok.: 28B
Kat.: adlag.
Def.: "flotando". D. pertsona bat itota, enbarkazioa portuan..
Dok.: Azk. -

***flotasiño - flotasiñue**
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: "linea de flotación". D. merkanteetan obra muerta eta obra viva-ren bitartea.
Dok.: Azk. -

fogonero, fogoneru 1.
Lok.: 17A, 29B
Kat.: iz. Ibili.
Def.: "fogonero".
Enz.: D. ikatza bota eta galdara jagoten zuena.
Zit.: an ibiltxe naitxen fogoneru
Dok.: Azk. -

fogonerue a. 2.
Lok.: 35B, 21A
Kat.: iz.
Def.: "carbonero". D. arrastako arraina, ez kostakoa.
Enz.: D. makallo tartean ateraten dugu hori, Gran Solen-eta atrapaten da.
Lek.: fogonero - fogonerua
Dok.: Azk. -

fóka - fókie, áurreko fókie 1.
Lok.: 7B, 8B, 20A

Kat.: iz.
Def.: D. aurrean iminten den bela branka-musturretik eta palura.
Enz.: D. atunetan eta eguraldi txarra dagoenean usaten da, baltsa botaten dute eta iminten diote foka geldi-geldi popadan eukitzeko enbarkazioa. Beleroek ere usaten dute haizerantz joateko.
Ber.: fókie, aurreko fokie a.
Lek.: fokia a.
Dok.: Azk. -

fóka - fókie 2.
Lok.: 19B
Kat.: iz.
Def.: "foca".
Ber.: fóka
Dok.: Azk. -

fóko - fókuek
Lok.: 21B
Kat.: iz.
Def.: "foco".
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

folidxo - folidxue
Lok.: 20B
Kat.: iz.
Def.: barkuaren matrikula. D. "folio".
Oha.: begitu irudietan
Ber.: folidxo - folidxue
Dok.: Azk. -

fondeadero - fondaderue
Lok.: 32B
Kat.: iz.
Def.: "fondeadero".
Ond.: fondeadero - fondeaderu
Dok.: Azk. -

fondie
Lok.: 14B, 30A
Kat.: ad.
Def.: "fondear".

Zit.: fondiku? / sarik fonditeko ankillie
Oha.: antza *fondo-mon* esaten du gehiago, *fondie* holako galderaren baten-edo berak dinoez legez.
Ber.: fondie
Ond.: fondia
Dok.: Azk. -

fóndo-mon
Lok.: 14B
Kat.: ad.
Def.: "fondear".
Ber.: fóndo-mon
Ond.: fondu bota
Dok.: Azk. -

frankobordo - frankobordue
Lok.: 33B
Kat.: iz.
Def.: merkanteetan noraino karga behar den erakusten duen lerroa.
Ber.: frankobordue a.
Dok.: Azk. -

frená
Lok.: 22B
Kat.: ad.
Def.: "frenar".
Ber.: frena
Ond.: frena
Dok.: Azk. -

fréno - frénue
Lok.: 17B, 22B
Kat.: iz.
Def.: "freno". D. arrastan makinillak eroaten du frenoa.
Enz.: D. sarritan engantxa barik, frenoaren gainean doa sarea arrastan.
Ber.: fréno
Ond.: frenu a.
Dok.: Azk. -

***freskera - freskérak**
Lok.: 9B
Kat.: iz.

Def.: D. freskotako arraina hartzen duten andrak, plazarako kaxa bat edo bi arrain edo. Nagusiak ere badagoz kamioikadak botaten dituztenak herrietara.
Enz.: D. atxina andrak buruan otzara hartuta etorten ziren Mundakara antxoba saltzen. Baita orain sasoian ekarten zituzten injadak berotan fabrikatik, atunen belarriak.
Ber.: freskérak
Dok.: Azk. -

fréskotako (arrañe)
Lok.: 9B, 36A
Kat.:
Def.: D. fabrikarako barik freskerek saltzen duten arraina. Freskotako beti karuago fabrikarako baino.
Zit.: freskotako, au presidxu eiñdxau da fabrikarako, au presidxu eiñdxau
Ond.: freskoako
Dok.: Azk. -

***fueraborda - fuerabordie**
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "fueraborda".
Ber.: fueraborda - fuerabordie
Dok.: Azk. -

G

gabarra - gabarrie
Lok.: 12A, 13B
Kat.: iz.
Def.: "gabarra". D. merkanteari kargak hutsitzeko.
Ber.: gabarrie a.
Ond.: gabarri a.
Dok.: Azk. Gabarra (B, G), gabarra.

galafatie
Lok.: 9B
Kat.: ad.
Def.: "calafatear". D. estopa sartu oholetan.
Enz.: D. enbarkazio berriak lehenengotarik daroa eta sarri, ura egiten badu, galafatia egiten da.
Sin.: estopa

Dok.: Azk. -

galarren - galarrena
Lok.: 14A, 15A
Kat.: iz.
Def.: "galerna".
Enz.: D. normalean eguerditik gora izaten da.
Ond.: galarrena a.
Dok.: Azk. Galarren 1º (B, G), galerna.

galdara - galdarie
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "caldera".
Ber.: galdara - galdarie
Ond.: galdari a.
Dok.: Azk. Galdara (Bc), caldera

galdara-makiñek a.
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "máquina de vapor".
Ber.: galdara-makiñek a.
Dok.: Azk. -

***galdxoi - galdxoye**
Lok.: 2B
Kat.: iz.
Def.: *labrus* familiako arraina. D. lula baino handiagoa da, eskama dauka.
Enz.: D. lulatan zagozenean atrapaten da, arrain ona da jateko.
Dok.: Azk. GAIO 1º (B-mu), un pez marino, sin escamas, de piel muy lisa y reluciente; es mayor que la LULA.

galernaso - galernasue
Lok.: 15A
Kat.: iz.
Def.: D. galarren gogorra.
Zit.: ño! Au dok galernasue!
Ond.: galernasu a.
Dok.: Azk. -

gáltzaidxe a.

Lok.: 14B, 37A
Kat.: iz.
Def.: tintatueran hariak hartu ez duen tinta, amurako balio ez zuen bokart gazia, eta abar.
Dok.: Azk. Galtzai (Bc), pérdida, perdición.

gallá - gallie
Lok.: 2B, 3B
Kat.: iz.
Def.: D. amuak puntan daukan gantxoa, arpoiak legez egiten duena.
Ber.: gallé a.
Dok.: Azk. GAILLA 1º (B-b-mu), pala o paleta del anzuelo, en que se sujeta la pita del aparato de pesca.

galletie a.
Lok.: 11B, 36B
Kat.: iz.
Def.: "galleta".
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

gánba - gánbie
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: "gamba".
Ber.: gánba - gánbie
Ond.: ganba - ganbi
Dok.: Azk. -

gángille a.
Lok.: 12A, 37B
Kat.: iz.
Def.: "gánguil".
Enz.: D. Erandion egoten ziren hondoko basa hartzen.
Dok.: Azk. -

***gar - garrá**
Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: D. itsasoa errementa gurarik datorrenean dakarren bitsa, garra dariola.
Ber.: garrá a.
Dok.: Azk. -

garda - gardia, gardie 1.
Lok.: 1A, 12A, 19A, 32A, 33B, 34B
Kat.: iz.
Def.: "tintorera", *prionace glauca*. D. tiburoiaren antz-antzeko arraina, hogeitamar, berrogei kilokoa eta gehiagokoa ere bai.
Enz.: D. lehen ez zen jaten, gero orain hogei bat urte ta hartzen zituzten gauez gardak eta azala kenduta saldu egiten ziren Ondarrun. Esaten zuten Zumaian jan egiten zela, udatiarren eraginez izango da. Jeneralean hirugarren bueltan jaten du karnada.
Ber.: gardá - gardie
Lek.: kardaya a.
Ond.: garda - gardi
Dok.: Azk. GARDA 1º (B-b-mu), pez que parece ser el marrajo.

GARDI BAIÑO LUSIAU SAUS
Lok.: 33B
Kat.: e.
Def.: baporean etzanda lo edo dagoenari esaten zaio.
Dok.: Azk. -

garda - gardia, gardie 2.
Lok.: 12A
Kat.: adj.
Def.: okerra.
Zit.: gardi sara
Sin.: arrain santarra, trabeseko panela
Dok.: Azk. -

gártxi - gártxidxek
Lok.: 11B, 20A
Kat.: iz.
Def.: D. motoak, tirak eta barruko apaiu guztiak, armamendu guztiak. Legez erderaz belarenak baino ez dira.
Ber.: gártxi
Ond.: gartxi - gartxíxak
Dok.: Azk. -

gasoliña - gasoliñie
Lok.: 38A
Kat.: iz.
Def.: "gasolina".

Dok.: Azk. -

gastaña-lokotza a.
Lok.: 19A
Kat.: iz.
Def.: D. gaztainaren lokatzaren berdin-berdina da.
Enz.: D. itsasoan haitz-tarteetan eta egoten da.
Dok.: Azk. -

gatera - gaterie
Lok.: 5A
Kat.: iz.
Def.: "gatera".
Oha.: begitu irudietan
Ond.: belarrixak a.
Dok.: Azk. -

***gibarroi - gibarroye**
Lok.: 28B
Kat.: iz.
Def.: "tromba".
Oha.: beharbada seguruagoa da *tronpie* esangura honetarako *gibarroye* baino.
Sin.: tronpie 1.
Dok.: Azk. -

gídxe - gídxie
Lok.: 15B
Kat.: iz.
Def.: ITSASOA enziklopediako lehenengo liburuan, 211. orrialdeko 23 zenbakidun irudiko "cala". Atxinako arteetar. D. otzaratik gora datorren txikota buiara.
Ber.: gídxe - gídxie
Dok.: Azk. -

gillá - gillie
Lok.: 3A, 7B, 15A, 24B
Kat.: iz.
Def.: "quilla".
Oha.: begitu irudietan
Ber.: gill- gillé
Lek.: gillia a.
Ond.: gilla - gilli

Dok.: Azk. Gilla 1º (B-b-i), quilla.

gillas gora, gilles gora
Lok.: 29A
Kat.: adlag.
Def.: D. "tripaz gora".
Zit.: an dakosu a gilles gora plantata
Ber.: gilles gora
Dok.: Azk. -

gillola a.
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: D. gillaren kontra doan lehenengo ohola.
Ber.: gillola a.
Ond.: gillola a.
Dok.: Azk. -

***giñada - giñadie**
Lok.: 23B
Kat.: iz.
Def.: brankaz joan barik baborrera edo estiborrera hartzen den okertasuna.
Ond.: giñari a.
Dok.: Azk. -

giñadi emoten
Lok.: 23B
Kat.: e.
Def.: D. arrastan mandaraka-mandaraka joan sarea zabalduteko.
Ber.: giñadi emon
Dok.: Azk. -

gitxitxu
Lok.: 6B
Kat.: ad. Makina.
Def.: "moderar (máquina)".
Sin.: amodera, akorta
Ber.: gitxitxu
Dok.: Azk. Gitxitu (Bc), disminuir.

goberna
Lok.: 36A

Kat.: ad.
Def.: D. lema eroan.
Ond.: goberna
Dok.: Azk. -

goguarrain!
Lok.: 33B
Kat.: ex.
Def.: D. suertea euki!
Zit.: kabura gues tximinoitxen. - E gogouarrain! Ni beste leko batera nuc
Dok.: Azk. -

goiko mandie a.
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: D. lesta.
Ant.: beko mandie
Dok.: Azk. -

góitxarrak a.
Lok.: 3A
Kat.: iz.
Def.: Mundakatik lesteranzko portuetako arrantzaleak. D. goitarrak lekeitiarrak eta ondarrutarrak ere bai baia gehien kiputzari esaten zaio.
Ber.: góitxarrak a.
Lek.: Jose Marittarrak a.
Ond.: goitxárrak a.
Ant.: betarrak
Dok.: Azk. -

gonbitxo-larridxe a.
Lok.: 26B
Kat.: iz.
Def.: "mareo".
Dok.: Azk. -

gonbíx - gonbixa
Lok.: 1B, 9A, 37A, 38B
Kat.: iz.
Def.: *scorpaena* familiako arraina. D. kostan-kostan atrapaten da, itxaskabra baino txikiagoa.

Ber.: gomíx - gomixe, gonbixe
Lek.: bonbixa, ponpixa a.
Dok.: Azk. GOMIZ (B-b), pececillos comestibles de aletas y cabeza grandes, que se pescan junto a las peñas; unos son negruzcos, otros rojizos.

gónidxo - gónidxue
Lok.: 3A
Kat.: iz.
Def.: "gonio".
Oha.: begitu irudietan
Ber.: gonidxue a.
Ond.: goniu - goniue
Dok.: Azk. -

gorabera - goraberie
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "resaca".
Zit.: gorabera andidxe dau
Sin.: erresakie
Ber.: gorabera
Dok.: Azk. Gora-beera, gora-behera, gora-bera 2º (B, G), flujo y reflujo del mar.

***goraldi - goraldidxe**
Lok.: 33B
Kat.: iz.
Def.: erresaka dagoenean uraren goranzko aldia.
Ant.: beraldidxe
Ber.: goraldidxe a.
Dok.: Azk. Goraldi 1º (B, G), flujo.

gorri - gorridxe
Lok.: 13B, 14B
Kat.: iz.
Def.: "banco de peces". Gorri ikusten den arrain multzoa.
Zit.: gorri txikidxe
Ber.: gorrí - gorridxe
Lek.: gorridxa a.
Ond.: gorrixe a.
Dok.: Azk. GORRI 3º (B-l), manjúa, montón de sardinas u otros peces pequeños de la mar.

AN GORRIDXE!
Lok.: 11A
Kat.: ex.
Def.: arrainaren gorritasuna ikusieran botaten zen oihua, manjungan ere sarri esaten zen.
Ber.: an gorridxe!
Ond.: an gorrixe!
Dok.: Azk. -

gradú - gradúek
Lok.: 13B, 30B
Kat.: iz.
Def.: "grado". D. konpasaren graduak.
Ber.: grado - gradue
Dok.: Azk. -

***granpín - granpiñe**
Lok.: 12A, 27B
Kat.: iz.
Def.: D. ankillaren antzean baia txikia. Txikoten bat atrapateko edo batelean bazagoz atrakateko mollara granpina botata.
Ber.: granpín - granpiñe
Lek.: karpiña a.
Ond.: granpiñe a.
Dok.: Azk. KARPIN (B-I), conjunto de tres o cuatro anzuelos unidos formando figura de ancla.

grilleta - grilletie
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "grillete". D. kateak amarrateko, guardakaboa ere grilletan doa.
Ber.: grilleta - grilletie
Ond.: grilleta
Dok.: Azk. -

grúa - grúie
Lok.: 28A, 31A
Kat.: iz.
Def.: "grua".
Oha.: cf. *matxiñie*
Dok.: Azk. -

guarda-guardaka
Lok.: 33B
Kat.: adlag. Joan.
Def.: D. eguraldi txarra dagoenean saltoka eta balantzadaka joatea enbarkazioa.
Dok.: Azk. -

guardakabo - guardakabue
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "guardacabo".
Ber.: guardakabo
Ond.: guardakabu a.
Dok.: Azk. -

guardakol - guardakola
Lok.: 6A, 25A
Kat.: iz.
Def.: D. zubia eta makina tapaten dituena, ezkatza eta denak hor barruan doaz.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: guardakola a.
Dok.: Azk. -

***guardakoleko tapa - guardakoleko tapak**
Lok.: 26B, 37B
Kat.: iz.
Def.: guardakola zarratutekoak.
Dok.: Azk. -

***guardarrain - guardarrañ, guardarrañek**
Lok.: 13B, 33B
Kat.: iz.
Def.: D. kubertan arraina iminteko dagozen kaxoiak.
Ber.: guardarrañek a.
Dok.: Azk. -

guardasobille a.
Lok.: 19A, 28A
Kat.: iz.
Def.: "pez martillo".
Ond.: txapelokerra a.
Dok.: Azk. -

***guárdi (guárdirik) - guárdidxa, guárdidxek**
Lok.: 37B
Kat.: iz.
Def.: "guardia".
Enz.: D. arrastan kosta joaten zen gau guztian eta beti marinero batekin, marineroek erlebua hartzen zioten elkarri.
Dok.: Azk. -

guayakana a.
Lok.: 7B
Kat.: iz.
Def.: "guayacán".
Enz.: D. kaskilloak guaiakanezkoak izaten ziren.
Ber.: guayakana a.
Dok.: Azk. -

I
inbornal - inbornala
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: "imbornal". D. enbarkazioak obramuertan daukan ziloa kanpora, urak urteten duena.
Ber.: inbornalak a.
Dok.: Azk. -

iñdxada - iñdxadie
Lok.: 2B, 8B
Kat.: iz.
Def.: "ijada".
Sin.: belarridxe
Ber.: iñdxada - iñdxadie
Lek.: iñdxaria a.
Ond.: mendriska - mendriski
Dok.: Azk. INJADA (B-b-l), ijada de peces.

ipár -iparra
Lok.: 3A, 9B, 15A, 36B
Kat.: iz.
Def.: D. lesteko haizea, lesta-nordesta.

Enz.: D. gaua egikeran eguzkia garbia sartzen bada uretan tapa barik iparrak segidu lezake baia sartu baino lehenago tapaten bada hurrengo egunean ez dago iparrik.
Ber.: iparra a.
Lek.: iparra a.
Ond.: iparra a.
Dok.: Azk. IPAR 3º (AN, B, G, L), este, viento este.

ipar-lañu(e)k a.
Lok.: 15A
Kat.: iz.
Def.: eguzkia uretan sartu orduko tapaten duten lainoak, hurrengo egunean ez dago iparrik.
Oha.: holako azalpena ematen du iparra eta lainoen artean, dena den ez dakit seguru *ipar-lañuek* horiek diren edo beste batzuk.
Ber.: ipar-lañue a.
Lek.: iparlañua a.
Dok.: Azk. Ipar-laiño (B-l), nubes precursoras del viento nordeste.

iru itxaso segikuek, iru olatuek a.
Lok.: 23A
Kat.: iz.
Def.: D. "las tres Marías". Hondoko itsasoa egoten denean elkarrekin etorten diren hiru itsasoak.
Dok.: Azk. -

iskurridxe a.
Lok.: 10B, 11B
Kat.: iz.
Def.: "plancton". D. "planton". Ezkiraren antzekoa da, atunek eta jaten dutena.
Ber.: iskurri - iskurridxe
Dok.: Azk. -

islá - islie
Lok.: 1A
Kat.: iz.
Def.: "isla".
Lek.: islia a.
Ond.: isli a.

itxasapo - itxasapua. Ik. sapue

***itxas-arratoi - itxas-arratoye**
Lok.: 19A
Kat.: iz.
Def.: "pez rata"?
Dok.: Azk. -

itxas-frankue a.
Lok.: 8B, 33B
Kat.: iz.
Def.: "alta mar". D. zabal zagozenean.
Ber.: itxas-frankue, itxos-frankue a.
Lek.: *ittas-frankua a., itxas-franko(ko)
Ond.: ittos-franku a.
Dok.: Azk. -

itxasgixona, itxasoko gixona a.
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: D. arrantzalea.
Ber.: itxasgixona, itxosgixona a.
Dok.: Azk. Itsasgizon (AN-est, Gc, Lc), Itxasgizon (Bc), marino.

itxaskaballue, itxas-saldidxe a.
Lok.: 35B
Kat.: iz.
Def.: "caballito de mar".
Dok.: Azk. -

itxaskabra - itxaskabrie
Lok.: 19A
Kat.: iz.
Def.: "cabracho". D. *gonbixe* baino lodiagoa eta handiagoa izaten da.
Ber.: itxaskabra
Lek.: itxaskabria a.
Ond.: itxoskabra - itxoskabri, itxaskabri
Dok.: Azk. Itxaskabra (Bc, G-zumay), cabracho, pez marino muy rojo, de cabeza voluminosa, se defiende con aguijón.

itxaskato - itxaskatue, itxasgatue
Lok.: 3A, 34B, 37A
Kat.: iz.

Def.: *chimaera monstrosa* (4 bider ezagutu du) eta *oxynotus centrina*? (2 bider). D. urdin argia da, buztana mehe-mehe-meha dauka eta begi handiak.
Enz.: D. gerra denboran haren gibela eta gauzak erabilten ziren kurtzuluentzat argia egiteko, baserrietara eroaten zuten. Jateko ere erabilten zen, bere koipearekin egiten zen arraina prejidu eta jan.
Ber.: itxaskato
Dok.: Azk. Itxaskatu (B-b, G-zumay), pez de ojos y dientes parecidos a los del gato, de cola larga; su hígado, sumamente grasiento o aceitoso, se usa como remedio contra la tiña.

itxaskirri - itxaskirridxe
Lok.: 15A
Kat.: iz.
Def.: "marejada". D. itsaso gutxi dagoenean.
Sin.: manejadie
Ber.: itxaskirridxe a.
Dok.: Azk. -

itxaso - itxasue 1.
Lok.: 1A, 2B, 16B
Kat.: iz.
Def.: "mar".
Ber.: itxoso - itxosue
Lek.: itxaso - itxasua
Ond.: ittoso, itxoso - itxosu
Dok.: Azk. ITSASO 1º (c. ...), mar.

ONDOKO ITXASUE a.
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "mar de fondo".
Sin.: ondoko olatue
Lek.: bagia a.
Dok.: Azk. -

itxaso - itxasue 2.
Lok.: 15A, 23A
Kat.: iz.
Def.: "ola".
Sin.: olatue
Ber.: itxoso - itxosue

Lek.: itxaso - itxasua
Ond.: ittoso, itxoso - itxosu
Dok.: Azk. -

itxaso - itxasue 3.
Lok.: 12A, 23A
Kat.: iz. Egon, ekarri.
Def.: "mala mar"?
Zit.: dauenin itxasue, ori da dxue / Ixarok bigoti badako, itxasu da ganien / señale itxasu dakarrena / itxasu dauenien, lulik estau dxaten
Dok.: Azk. -

itxasoandidxe a.
Lok.: 15A, 23B
Kat.: iz.
Def.: D. hiru metrotik gorako olatua.
Lek.: ittasoandidxa, itxasoandidxa a.
Ond.: itxosoandixe a.
Dok.: Azk. -

itxaso andidxek austen
Lok.: 28B
Kat.: e.
Def.: "rompiendo mares". Nabegaten dabilenagaitik esaten da.
Dok.: Azk. -

itxaso errementadutatos
Lok.: 22A
Kat.: e.
Def.: D. asaotik apurtuten datozen itsasoak.
Dok.: Azk. -

itxasogaldo - itxasogaldue
Lok.: 25B
Kat.: iz.
Def.: segida baten barik bera bakarrik datorren olatua.
Ber.: itxasogaldo - itxosogaldue
Dok.: Azk. -

itxaso gogorra a.
Lok.: 15A, 18A
Kat.: iz.

Def.: "mar gruesa".
Dok.: Azk. -

itxasoko estrellak a.
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "estrella de mar".
Dok.: Azk. -

itxasoko kaballue, itxasoko saldidxe a.
Lok.: 34B, 37A
Kat.: iz.
Def.: "caballito de mar".
Enz.: D. atrapaten ziren Mundakako itsasadarrean.
Bar.. itxaskaballue, itxas-saldidxe
Dok.: Azk. -

itxasoko karakol - itxasoko karakola. Ik. karakola

itxasorik arakue, uretarik arako arrañe
Lok.: 34A
Kat.: adj.
Def.: "pescado fresco".
Dok.: Azk. -

itxasote - itxasotie
Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: itsasora urtetea.
Zit.: gaur estau itxasoterik / itxasote baten ba au arrañe artun du
Ber.: itxosote
Ond.: *ittosate (ittosateik) - ittosati
Dok.: Azk. -

itxas-sabalien
Lok.: 33B
Kat.: adlag.
Def.: "en alta mar".
Dok.: Azk. Itsas-zabal (G), alta mar.

itxastxakurre a. 1.
Lok.: 19B, 22B
Kat.: iz.

Def.: D. "nutria". Txakurraren antzekoa baia txikiagoa, azala finfintxua eukitzen zuten. Alauri egiten zuen pertsonak lez.
Enz.: D. haitz-ziloetan egoten zen, Portuondo puntan, Bermioko portuan ere bai atxina. Mundakan batzuk kume bi ekarri zituzten Portuondoko ziloren baten topata.
Sin.: uraberie
Dok.: Azk. Itxastxakur (B-i), nutria.

itxastxakurre a. 2.
Lok.: 22B
Kat.: iz.
Def.: itsasora eroaten den txakurra.
Enz.: D. Bermion eta Mundakan enbarkazio guzti-guztiek euki dituzte fox terrierrak.
Dok.: Azk. -

itxastxori - itxastxoridxe
Lok.: 15B, 16A, 32B, 34A
Kat : iz.
Def.: "gaviota". D. zenbat eta zaharragoa zuriagoa.
Ber.: itxotxori - itxotxoridxek
Lek.: santza - santzia
Dok.: Azk. Itsastxori 1º (Bc, Gc, L), gaviota, en general. 2º (B-b), mallón, una gaviota llamada KAIO en Lekeitio.

itxasubeteko
Lok.: 28B
Kat.: adj. Enbarkazioa, portua..
Def.: upilakoa, handia. D. gauza bat handia denean.
Ber.: itxesupeteko - itxesupetekue
Dok.: Azk. -

itxasuskidxe a.
Lok.: 7A, 19A
Kat.: iz.
Def.: D. ez da arraina baia bizia da.
Enz.: D. udan egoten da portuetan eskillaretan eta, biguna eta labana da. Eskutan euki ezkero atzerantz botaten du, nazka ematen du. Umetan indarrak egikeran atzetik urteten du uzkiak, haren antzekoa da eta hortik datorkio izena.
Ber.: itxasuskidxe
Dok.: Azk. Itxasuski (B-b), dugongo?, vaca de mar (cierto pez).

itxó
Lok.: 26B
Kat.: ad.
Def.: "ahogarse".
Dok.: Azk. ITO (AN, B, G), itho (BN, L, S): 1º ahogarse o ahogar. 3º (c), ahogado.

ixá, ixé
Lok.: 10B
Kat.: ad. Bandera, belak .
Def.: "izar".
Ber.: ixé
Ond.: ixa
Dok.: Azk. IZA 3º (B-I), izar.

Ixarok bigoti badako, itxasu da ganien
Lok.: 23A, 25B
Kat.: e.
Def.: D. Izaron bitsa ikusten bada seinale itsasoa dakarrena.
Dok.: Azk. -

***ixilleko - ixillekue**
Lok.: 27B
Kat.: iz.
Def.: partilla egikeran andrek jakin barik, ustez, banatuten zen dirua.
Ber.: ixillekue a.
Ond.: ixilleko partilli a.
Dok.: Azk. -

ixurda - ixurdia
Lok.: 2A, 9A, 25B, 27A, 28A, 37A
Kat.: iz.
Def.: "delfín".
Enz.: begitu *mandxungan*
Ber.: ixurde - ixurdie, ixurdek
Lek.: ixurda - ixurdia
Ond.: ixurda - ixurdi
Dok.: Azk. Izurda (Bc), izurde (B, G), tonina, delfín, cerdo de mar.

ixurdako arrañe a.
Lok.: 13B
Kat.: iz.

Def.: "manjúa". Izurdak ateraten zuen arraina.
Dok.: Azk. -

ixurdan
Lok.: 13B, 17B
Kat.: adlag. Ibili
Def.: izurdaren atzean, manjungan.
Zit.: ixurdan ibiltxen giñen
Dok.: Azk. -

J
Jesús!
Lok.: 3B
Kat.: ex.
Def.: kazan arrainak heldu duela patroiari jakin erazteko botaten den oihua.
Ber.: Jesús!
Lek.: eta!
Ond.: deutze!
Sin.: eutzo!
Dok.: Azk. -

jiratoidxue a.
Lok.: 21B
Kat.: iz.
Def.: "giratorio".
Oha.: begitu irudietan
Ond.: jiratoxu a.
Dok.: Azk. -

júnta - júntie 1.
Lok.: 3B, 19B, 33B
Kat.: iz.
Def.: D. ohol biren enpalmea. Hori joaten da galafateata eta gero mastika edo zementua ematen da.
Ber.: júnte - juntek
Dok.: Azk. -

júnta - júntie 2.
Lok.: 10B
Kat.: iz.
Def.: "junta, reunión".

Enz.: D. San Pedroetan eta Santa Katalinetan egiten dute junta arrantzaleek Mundakan.
Dok.: Azk. -

K

kaballaje
Lok.: 17B
Kat.: iz.
Def.: "caballaje".
Ber.: kaballajie a.
Ond.: kaballaje - kaballaji
Dok.: Azk. -

kaballo
Lok.: 18A, 19B
Kat.: iz.
Def.: "caballo".
Zit.: larogei kaballoko motorra / semat kaballo dako motorrak?
Ber.: kaballo
Ond.: kaballu a.
Dok.: Azk. -

kabesada - kabesadie
Lok.: 12A, 34A
Kat.: iz.
Def.: "cabeceo". D. haizearen barrura zoazenean da kabezada.
Ber.: kabesadie a.
Dok.: Azk. -

kabesadaka
Lok.: 12A
Kat.: adlag. Joan.
Def.: "dando cabeceos".
Ber.: kabesadaka
Dok.: Azk. -

kabeso - kabesue
Lok.: 20B
Kat.: iz.
Def.: "cabezo". D. itsasoko haitz altuak.
Enz.: D. hemendik ez dago. Castroalenen, Castrogaz nortean dago bat.
Ber.: kabesuek a.

Dok.: Azk. -

kabilla - kabillie
Lok.: 25B
Kat.: iz.
Def.: leman, juntetan sartzen den zerbait?

káble - káblie
Lok.: 15B, 17B
Kat.: iz.
Def.: "cable". Arrastan erabiltzen dena.
Enz.: D. hamalau, hamasei edo hogeiko kablea usaten da. Hogeikoa enbarkazio handiek.
Ber.: káblie a.
Ond.: kabli a.
Dok.: Azk. -

kábo - kábue
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "cabo". Geografian.
Ber.: kábue a.
Dok.: Azk. -

***kabotaje - kabotajie**
Lok.: 15A
Kat.: iz.
Def.: "cabotaje".
Ber.: kabotaje - kabotajie
Dok.: Azk. -

kabotajeko barkue a.
Lok.: 15A, 17A
Kat.: iz.
Def.: "barco de cabotaje". D. kostan ibiltzen direnak.
Ond.: kosteru a.
Dok.: Azk. -

kabra - kabrie
Lok.: 2A
Kat.: iz.

Def.: "cabra, cabracho". D. zenbat eta kostarago, harri gogorrerago, beltzagoa da eta, behin hogeitamar brazatatik eta kanpora, zuristagoa.
Ber.: kábra - kábrie
Lek.: kabra - kabria
Ond.: kabri a.
Dok.: Azk. Kabra (Bc), pajel, vulg. cabra, cierto pez rojo y espinoso.

KABRA BALTZAK a.
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: D. kostan eta atrapaten den kabra ilunagoa da, beltzagoa, horregatik izena.
Dok.: Azk. -

KáBRA GORRIDXE a.
Lok.: 9A, 21A
Kat.: iz.
Def.: D. kanpoan, kaletan atrapaten den kabra, arrosa kolorea gehiago dena.
Dok.: Azk. -

KOSTAKO KABRIE a.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: D. kabra txikia, kostan atrapaten dena.
Ber.: kostako kabrie a.
Dok.: Azk. -

***kabrestante - kabrestanti(e)k**
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "cabrestante".
Ber.: kabrestantiek a.
Ond.: kabrestante - kabrestanti
Dok.: Azk. -

kaela a.
Lok.: 3B
Kat.: iz.
Def.: "carel". D. obramuertaren goian doana.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: kaela a.

Ond.: kaela a.
Dok.: Azk. KAREL: 1º (B, G), borde de lanchas.

kael-ganie a.
Lok.: 27A
Kat.: iz.
Def.: kaela.
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

kafetera - kafeterie
Lok.: 24A
Kat.: iz.
Def.: "cafetera". Itsasora eroaten zena.
Dok.: Azk. -

kaida - kaidie
Lok.: 20B
Kat.: iz.
Def.: "caída". D. kortxotik eta beraunerarte dagoen altura.
Enz.: brazatan neurtuten da.
Ber.: kaide - kaidie
Ond.: kaidi a.
Dok.: Azk. -

kaja
Lok.: 22B
Kat.: iz.
Def.: "caja".
Zit.: bosteun kaja darugu
Dok.: Azk. KAIZA 1º (AN, B, G), caja, baul.

kaka-belenie a.
Lok.: 31B
Kat.: iz.
Def.: tuberietatik urteten duen zikina, basa bigunari ere esaten zaio.
Enz.: D. orain ez du urteten horrenbeste portura, orain haitzetara urteten du.
Dok.: Azk. -

kakadxalie a.
Lok.: 27B, 38A
Kat.: iz.

Def.: neguan txirleten atzean ibiltzen den txoria.
Sin.: marikakie
Dok.: Azk. -

kakaleko - kakalekue
Lok.: 32A, 38A
Kat.: iz.
Def.: sastarretako apaiuak joaten diren lekua.
Enz.: D. atxina ez zen egoten komunik eta atzeko barandillatik egiten zen kaka, horregaitik dauka hori izena.
Ond.: kakaleku a.
Dok.: Azk. -

kalá
Lok.: 35A
Kat.: ad. tr.
Def.: "calar".
Ber.: kalá
Ond.: kala
Dok.: Azk. -

kála - kálie
Lok.: 6A, 14B, 21B, 23A
Kat.: iz.
Def.: "playa de pesca". D. arrastan *plaia* esaten da eta bolantakaz, piedrabolakaz eta horiekaz *kala*
Ber.: kála - kálie
Lek.: kala
Ond.: banko - banku
Dok.: Azk. KALA: 1ª (B, G), cala, sitio de pesca en mar abierto.

BARRUKO KALAK a.
Lok.: 5A, 13A, 16B, 21B
Kat.: iz.
Def.: D. barrurengoko kalak: Errekado, San Anton.. Baita hementxe breketako eta holako lekuak, hauek ez dira benetako kalak.
Dok.: Azk. -

MUNDEKAKO KALAK a.
Lok.: 14A
Kat.: iz.
Def.: barruko kalak? Tximinoitako eta breketako lekuak.
Dok.: Azk. -

kalabort - kalaborta
Lok.: 7A, 20B
Kat.: iz.
Def.: "calabrote". D. merkanteak amarrateko txikot lodia, ia gizonaren lodierakoa. Bitetan enkapillateko alanbrazko estrapo bat daroa, gero merkantean biraten da alanbrarekin.
Ber.: kalaborta a.
Lek.: kalaborta a.
Ond.: kalaborta a.
Dok.: Azk. Kalabrote (B-l), calabrote.

kalabortillue a.
Lok.: 20B
Kat.: iz.
Def.: D. kalaborta baino txikot meheagoa, barruan eukitzen dituzu. Eraztun bi dauzka, bat doa mollako bitara eta bestea alanbra batekin barruko bitara.
Ber.: kalabortillue a.
Lek.: kalabortillua a.
Ond.: kalabortillu a.
Dok.: Azk. -

kalamoso - kalamosue
Lok.: 20B, 36B
Kat.: iz.
Def.: D. kalara allegakera, allega barik atrapateko dagoenean, kalako ahoa.
Zit.: kalamosun gaus
Ber.: kalamosue a.
Dok.: Azk. -

***kalatxori - kalatxoridxe**
Lok.: 4A, 5A
Kat.: iz.
Def.: D. txirleta, itsastxoria baino txikiagoa.
Sin.: txirleta
Ber.: kalatxoridxe a.
Lek.: kalatxoridxa a.
Ond.: kalatxoixe a.
Dok.: Azk. Kalaterrita (B-b), kalatxori (B-l, G), cerola, cierta gaviota, de las más pequeñas.

kalau - kalaue
Lok.: 2B, 19B, 20B
Kat.: iz.
Def.: "calado".
Ber.: kalau - kalaue
Ond.: kalau
Dok.: Azk. -

kaldereta a.
Lok.: 17A, 19B
Kat.: iz.
Def.: galdaran behar egiten duenaren esakera moduko izena.
Ber.: kaldereta a.
Dok.: Azk. -

***kaldereterо (kaldereterorik) - kaldereterue**
Lok.: 19B, 37B
Kat.: iz.
Def.: galdaran behar egiten duena. D. fogoneroari eta engrasadoreari aginduten ziena.
Ber.: kaldereterue a.
Dok.: Azk. -

***kalma - kalmak**
Lok.: 5A
Kat.: adj.
Def.: "calmado, tranquilo".
Zit.: egualdi kalmatausenin
Sin.: bariek
Dok.: Azk. -

***kalmaldi - kalmaldidxe**
Lok.: 23B
Kat.: iz.
Def.: "rato de calma".
Sin.: kalmunie
Ber.: kalmaldidxe a.
Lek.: kalmaldidxa a.
Ond.: kalmaldixe a.
Dok.: Azk. -

kalma suridxek a.
Lok.: 5A

Kat.: iz.
Def.: itsaso bare-barea?
Ber.: kalma suridxe a.
Ond.: kalma surixe a.
Dok.: Azk. -

kalmatan
Lok.: 36A
Kat.: adlag.
Def.: "en calma".
Ber.: kalmatan
Sin.: baretan
Dok.: Azk. -

kalmatu
Lok.: 27B
Kat.: ad.
Def.: "amainar".
Zit.: kalmatu eiñdxau egualdidxek
Sin.: baretu
Ber.: kalmatu
Ond.: kalma
Dok.: Azk. -

kalma txitxa
Lok.: 18B
Kat.: iz.
Def.: "calma chicha".
Ber.: kalma y txitxa
Ond.: kalma txitxa
Dok.: Azk. -

kalmi dau
Lok.: 3B
Kat.: e.
Def.: "está en calma".
Zit.: dauenin kalmie ta egualdi ederra / kalmi dauenin da egualdi ederra
Dok.: Azk. -

kalmuna - kalmunie
Lok.: 23B
Kat.: iz.

Def.: D. haize asko eta halako baten egiten duen kalmaldia.
Ber.: kalmaunie a.
Ond.: kalmauni a.
Dok.: Azk. -

kalói - kaloye
Lok.: 5B, 10B, 11A
Kat.: iz.
Def.: "calón". Arrastako sarekoa. D. "calones".
Ber.: kaloye a.
Ond.: kaloi - kaloi, kaloik
Dok.: Azk. -

kálczo - káltzue
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: "calzo".
Ber.: káltzue a.
Dok.: Azk. -

***kallejoi - kallejoye**
Lok.: 35B
Kat.: iz.
Def.: D. guardakolaren babor-estiborrak.
Dok.: Azk. -

kamáin - kamañe
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: D. atxinako lastoekin egiriko koltxoia.
Ber.: kamáin - kamañe
Lek.: ka[illegible]ña
Ond.: kamaña - kamañi
Dok.: Azk. Kamaiña : 1ª (B-b-l), cama de marinos en sus buques.

kamarote - kamarotie
Lok.: 6B
Kat.: iz.
Def.: "camarote".
Ond.: kamarote
Dok.: Azk. -

kanál - kanala

Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: "canal". D. ur asko dagoen lekuan.
Ber.: kanala a.
Dok.: Azk. -

Kandelaidxo
Lok.: 27B
Kat.: iz.
Def.: D. otsailaren biko jaia. Mundakako aratusteak. Itsasora joaten da.
Dok.: Azk. Kandelaria (G), kandelera (AN-b, BN-s, R), kandelerio (Bc), kandelero (AN-lez, G), fiesta de la Candelaria.

kandelero - kandeleruek 1.
Lok.: 17B, 30A, 33B, 37B
Kat.: iz.
Def.: D. itsasoko arbolak.
Enz.: D. Eskotekoei deituten gerien.
Sin.: ondoko arbolak, korala
Ber.: kandeleruek a.
Lek.: kandelerua a.
Dok.: Azk. -

kandelero - kandeleruek 2.
Lok.: 17B, 24B
Kat.: iz.
Def.: D. barandilla armatekoak, burdinazkoak. Txikota sartzen da, batzuk eukitzen dute kable sartuta.
Dok.: Azk. -

kankamo - kankamuek
Lok.: 6B, 7B, 11A, 27B
Kat.: iz.
Def.: D. "las llaves". Segun ze luzera daukan sareak kankamo gehiago daroatza. Beraunean goma batekin doazen eraztunak dira, hortik doa pasata *bragerue*. Makinillekin birakeran egiten dute azpia zarratu.
Enz.: D. gure sasoian berrogeitamar-hirurogei brazako trainak ziren eta erabiltzen ziren hamahiru-hamalau kankamo.
Ber.: kankamo
Ond.: kankamuk a.
Dok.: Azk. -

BURUKO KANKAMUE a.
Lok.: 28B
Kat.: iz.
Def.: D. lehenengo kankamoa, aurrekoa.
Dok.: Azk. -

***kankilloi - kankilloye**
Lok.: 24B, 25A, 28B, 30B
Kat.: iz.
Def.: portuko putzu modukoa, sakonera handiagoa egiten dena.
Dok.: Azk. -

kanpai - kanpaye
Lok.: 20B, 23B
Kat.: iz.
Def.: "campana".
Enz.: D. zarrazoia egeten zenean joten ziren.
Dok.: Azk. Kanpae (B, ...). (V. Kanpa, 2º)

kanpañie a.
Lok.: 31B
Kat.: iz.
Def.: "campaña". Merkantean.
Dok.: Azk. -

***kanpo (kánpotik, kánpuen..)**
Lok.: 10B
Kat.: adlag.ak sortzeko.
Def.: itsas-frankoa.
Zit.: abadeju da kostaku be bai e? Bai, da kánpoku be bai / kálatan, or kánpuen / da orrek kalan bota, kánpuen / kalak besegutako ta orretako, ya diferentiek, dxun bi da ba kánpora / kánpora dabiltzasenak
Dok.: Azk. Kanpo : 1º (c), exterior, fuera.

kantarrabidxe a.
Lok.: 9A, 9B, 15A, 27B
Kat.: iz.
Def.: itsasadarretik behera datorren zarrazoia, sarri Izaro ikusi ere ez mandarik mandara. Zabalduten da Matxakuraino batzutan. Urte guztian izaten da izotzaldiak dagozenean.

Enz.: D. batzuetan *gernikarren lurruna* esaten dugu, gernikarrak esneak egosten dagozela eta hango lurruna datorrela.
Sin.: kañe
Ber.: andan-doridxe a.
Dok.: Azk. -

kantil - kantille
Lok.: 6A, 20B
Kat.: iz.
Def.: "cantil". D. plaia eta urandiaren jausikera.
Enz.: D. arrastan kantilean egiten da nahi plaian ere bai.
Ber.: kantille a.
Lek.: kantilla a.
Ond.: kantille a.
Dok.: Azk. -

kantil-ertza a.
Lok.: 6A
Kat.: iz.
Def.: plaiaren amaiera, kantilaren ertza, gero dator kantila.
Ond.: kantil-ertza a.
Dok.: Azk. -

***kantoi - kantoye**
Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: kantila?

kañabera
Lok.: 9A, 36B
Kat.: iz.
Def.: "caña".
Oha.: begitu irudietan
Lek.: kañabera
Ond.: kañabera - kañaberi
Dok.: Azk. Kaiñabera (Bc, Gc), caña.

kañé a.
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: itsasadarretik behera datorren zarrazoia.
Oha.: mugagabean *kain* izan ezkero, eta halan izango da, hau ez da berez dagokion lekua.

Sin.: kantarrabidxe
Ber.: kañé a.
Dok.: Azk. KAIN 3ª (B), niebla.

kapitxan - kapitxana
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "capitán".
Oha.: cf. agurie
Ber.: kapitxen - kapitxena
Ond.: kapitxana a.
Dok.: Azk. -

karakol - karakolak, itxasoko karakola
Lok.: 2A, 18B, 35B
Kat.: iz.
Def.: "caracola de mar". D. karakol handia izaten da.
Ond.: karakol - karakola
Dok.: Azk. -

karena
Lok.: 9A, 11A
Kat.: ad.
Def.: D. eskegi enbarkazioa baraderoan edo non den, sasiak eta ekarri eta sua egiten zen ohola sikatuteko. Pintura eta dena bigundu egiten zen eta gero egiten zioten arraskatu eta hori.
Enz.: D. atxina egiten zen. Inoiz ikusi dut karburoarekin sikatuten enbarkazioa pintateko, txapa baten imini karburoa eta ur apur bat bota, beroa ematen du, enbarkazioaren azpian pasa sikatuteko, pintateko. Horiek arrastako beharrak izaten ziren, pinta ere egiten zenuen bustita dagoela eta edozertara.
Dok.: Azk. -

karena - karenie
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: karenatearen ekintza.
Ber.: karenie a.
Dok.: Azk. Karena (B-b-l), carena.

kargá
Lok.: 31B
Kat.: ad.

Def.: "cargar".
Dok.: Azk. -

***karga - kargie**
Lok.: 11B
Kat.: iz.
Def.: "carga".
Ber.: karga
Ond.: kargi a.
Dok.: Azk. -

kargako barkue a.
Lok.: 37B
Kat.: iz.
Def.: "barco de carga, mercante".
Dok.: Azk. -

kargilla - kargillie
Lok.: 22B, 24B, 25B
Kat.: iz.
Def.: D. gauzak, trasteak: paluak, erramuak, berga..
Dok.: Azk. -

kargille-burdiñek a.
Lok.: 25B
Kat.: iz.
Def.: kargillari eusteko burdinak.
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

karioka - kariokie
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: "carioca". D. lebatz kumea.
Ber.: kariokie a.
Lek.: karioka - kariokia
Ond.: karioka - karioki
Dok.: Azk. -

KARIOKA IGIRIDXE a.
Lok.: 8B, 27A
Kat.: iz.
Def.: igiriko karioka.

KARIOKA SARRATU - KARIOKA SARRATUE
Lok.: 8B, 27A
Kat.: iz.

kariokilla - kariokillie
Lok.: 8B
Kat.: iz.
Def.: lebatz kumea.
Ber.: kariokillie a.
Ond.: kariokilli a.
Dok.: Azk. -

karkaba - karkabie
Lok.: 13A
Kat.: iz.
Def.: D. harri biren bitarteko area, pasua.
Ber.: karkabie a.
Dok.: Azk. KARKABA 3º (Bc), foso, zanja, cárcava.

***karnada - karnadie 1.**
Lok.: 29A, 37A
Kat.: iz.
Def.: "carnada".
Ber.: karnada
Ond.: karnata - karnati
Dok.: Azk. -

***karnada - karnadie 2.**
Lok.: 29A
Kat.: iz.
Def.: apaiua, harreman sexuala
Zit.: karnadi eskatu tzo
Dok.: Azk. -

karnadara
Lok.: 23A
Kat.: adlag.
Def.: D. txibiatan joaten zenean lehen.
Enz.: D. urrian Eara eta joaten ginen abantean. Hiru amuko apaiua izaten zen, txitxarroa, takarta edo txiloa edo iminaten genion amu bakoitzean. Agarraten zuenean txibiak alaten genduen geldika-geldika eta sarabardoarekin atrapa.

Oha.: cf. tangora
Dok.: Azk. -

karramarro - karramarrua
Lok.: 2A, 19A
Kat.: iz.
Def.: "cangrejo común". D. portuan eta han Urdaibain zenbakura daukazu hori.
Ber.: karramarro - karramarrue
Lek.: karramarrua a.
Ond.: karramarro - karramarru
Dok.: Azk. KARRAMARRO : 1ª (AN-ond, Bc), cangrejo.

ERRIDXOKO KARRAMARRUE a.
Lok.: 19A
Kat.: iz.
Def.: karramarro klase bat.
Dok.: Azk. -

INFERNUKO KARRAMARRUE a.
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: D. beltza da eta koadratua.
Enz.: karnadatako erabilten da muxoak eta lupinak aterateko palangreekin.
Lek.: inpernuko karramarrua a.
Dok.: Azk. -

KARRAMARRO-BIXARRA a.
Lok.: 4B, 19A
Kat.: iz.
Def.: karramarro klase bat.
Dok.: Azk. -

karraspidxo - karraspidxue
Lok.: 4A, 9B, 35B, 38B
Kat.: iz.
Def.: *symphodus* familiako arraina? D. durdoa lako berdin-berdina baia txikia.
Enz.: D. kostan tresmallekin ateraten da, antzina Mundakan molla-atzean ere atrapaten ziren. Prejiduta ta jaten da baia ez da ona.
Lek.: karraspidxo - karraspidxua
Ond.: karraspixo - karraspixu

Dok.: Azk. KARRASPIO (Bc, G), serrano, pececillo de la costa.

karreta - karrétak
Lok.: 2B, 5B
Kat.: iz.
Def.: "carrete".
Ber.: karreta - karretie
Ond.: karrete - karreti
Dok.: Azk. -

karretel - karretela
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: "carretel". D. arrastan alanbrak biraten direnak eta malletak-eta batzen direnak.
Enz.: D. orain pentsaten dut ez dutela usaten askorik hauek antxobatan. Lehen karretelera brageroa sartzen zen, orain karretelean batu beharrean eskuz biraten dizute kubertara.
Ber.: karretela a.
Ond.: karretela a.
Dok.: Azk. -

karrie
Lok.: 29A
Kat.: ad.
Def.: D. ankillak hondoari ez agarratea, arrastaka joatea.
Ond.: kasia
Dok.: Azk. -

karrindo
Lok.: 29A
Kat.: adlag. Joan.
Def.: arrastaka eroan ankilla hondotik.
Lek.: karriendo
Ond.: kasiando, kasiaten
Dok.: Azk. -

kárro - kárrue 1.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: "carro"? D. orain dagoena enbarkazioa eskegiteko.
Dok.: Azk. -

kárro - kárrue 2.
Lok.: 22A, 29B
Kat.: iz.
Def.: "carro". Arraina eroatekoa.
Zit.: aretan eruten san bokarta karrutan imiñdxe / kárrora botaten atunek
Ber.: kárro
Dok.: Azk. -

kárro andidxe a.
Lok.: 12A
Kat.: iz.
Def.: "osa mayor".
Ber.: kárro andidxe a.
Dok.: Azk. -

kárro nagosidxe a.
Lok.: 12A
Kat.: iz.
Def.: "osa mayor".
Ber.: kárro nagosidxe a.
Dok.: Azk. -

kárro txikidxe a.
Lok.: 12A
Kat.: iz.
Def.: "osa menor".
Ber.: kárro txikidxe a.
Ond.: karre txikixe a.
Dok.: Azk. -

kasán
Lok.: 3B
Kat.: adlag.
Def.: "a la cacea".
Ber.: kasán
Ond.: kasan
Dok.: Azk. -

kasero - kaseruek
Lok.: 38A
Kat.: iz.
Def.: D. kazan doazen enbarkazioak.

Dok.: Azk. -

kaseta - kasetie
Lok.: 3A
Kat.: iz.
Def.: D. zubia.
Sin.: subidxe
Ber.: kaseta - kasetie
Dok.: Azk. -

kaskallo - kaskallue
Lok.: 2B
Kat.: iz.
Def.: "bermejuela".
Ber.: kaskallue a.
Lek.: eskallua a.
Ond.: eskallo - eskallu
Dok.: Azk. KASKAILLA (B-g-m-mu), bermejuela (pececillo de río).

kaskarratoi - kaskarratoya
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: "cangrejo moruno"? D. errekako langostinoaren antzera egiten du.
Ber.: kaskarratoye a.
Sin.: santiagito
Dok.: Azk. -

kaskillo
Lok.: 7B
Kat.: iz.
Def.: D. ardatzak daroana desgasteagaitik bat barrutik eta bestea kanpotik.
Enz.: D. atxina guaiakan materialekoak ziren eta gero etorri zen metal zuria, bigunagoa. Desgastea badago metal zuria gastaten da bera ardatza baino arinago.
Ber.: kaskillo
Dok.: Azk. -

kásko - káskue
Lok.: 8A, 10B, 14A, 22A
Kat.: iz.
Def.: "casco". D. enbarkazio galdua (enbarrea).

Ber.: kásko - káskue
Dok.: Azk. -

***kasól - kasoya, kasoye**
Lok.: 29B, 38A
Kat.: iz.
Def.: D. arrain hazia, mielgaren antzekoa edo halakoa.
Oha.: ez da gogoratuten ondo zelako arraina den.
Dok.: Azk. -

kastillo - kastillue
Lok.: 6A, 27A
Kat.: iz.
Def.: D. kubertan aurrean egoten den salto bat.
Enz.: D. arrasteroek askok dauka kastilloa, orain atunetan eta antxobatan-eta dabiltzanek ere askok usaten du.
Ber.: kastillue a.
Dok.: Azk. -

katalejo - katalejue
Lok.: 22B
Kat.: iz.
Def.: "catalejo".
Ber.: katalejo
Dok.: Azk. -

***kate - katie, katíek**
Lok.: 10B, 11A, 15B
Kat.: iz.
Def.: "cadena".
Ber.: katie a.
Dok.: Azk. Kate (AN-b, B, BN-s, G), khate (S), katea (B, ...) : 1º cadena.

kátre
Lok.: 10B, 34A
Kat.: iz.
Def.: "catre". D. arraintxoetan egoten direnak lo egiteko.
Ber.: kátre - kátrie
Lek.: katre - katriak
Ond.: Ondarrun ez. *kamaña*
Dok.: Azk. -

katxalotie a.

Lok.: 2A, 19B
Kat.: iz.
Def.: "cachalote". D. seroi kumea.
Ber.: katxalotie a.
Lek.: katxalotia, katxalotak a.
Dok.: Azk. -

kisketien
Lok.: 23A
Kat.: adlag.
Def.: D. lebatzetan gora eta behera ibiltzen esku-apaiuekin.
Ber.: kisketan
Dok.: Azk. -

klárie a.
Lok.: 29A
Kat.: iz.
Def.: txubaskoaren ondoren dakarren zeru argia.
Ber.: klára - klárie
Dok.: Azk. -

klaraboyie a.
Lok.: 24B, 37B
Kat.: iz.
Def.: "claraboya". D. argia sartzekoak.
Dok.: Azk. -

kóbla, kóble - kóblie
Lok.: 6B, 12B, 15B
Kat.: iz.
Def.: D. tertzan amorik amora doana.
Enz.: D. breketan erabilten da kobla bateko apaiua edo kobla bikoa. Edoze arrainetan ere bai, lebatzetan lehen erabilten zen amo bakarra eta gero hiru amo iminda ba hiru kobla.
Ber.: kobla - kóblie
Dok.: Azk. -

kóbli(e)n bi
Lok.: 36A, 38A
Kat.: e.
Def.: luletan edo breketan arrain bi era batera atrapaten direnean esaten da.
Lek.: koble

Dok.: Azk. -

kobrá
Lok.: 33B
Kat.: ad.
Def.: "halar".
Ber.: kobrá
Lek.: kobra
Sin.: ala
Dok.: Azk. -

kodást - kodasta
Lok.: 3B, 8A
Kat.: iz.
Def.: "codaste". D. "roda".
Oha.: begitu irudietan
Lek.: korasta a.
Ond.: koasta a.
Dok.: Azk. Kodasta (B-b), codaste, coraza de hierro que tiene la lancha en sus extremidades, para afianzar la quilla. (V. Branka-burdiña.)

AURREKO KODASTA a.
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Dok.: Azk. -

ATZEKO KODASTA a.
Lok.: 7B
Kat.: iz.
Dok.: Azk. -

kodillo - kodillue
Lok.: 35A
Kat.: iz.
Def.: "codi'lo". D. bihurra.
Ber.: kodillo - kodillue
Ond.: kodillu a.
Dok.: Azk. -

kofradi - kofradidxe
Lok.: 10B, 19B, 35A
Kat.: iz.

Def.: "cofradía".
Enz.: D. Mundakan kasinoaren azpikoa da kofradia. Bermion gerra denboran bi egon ziren, errepublikanoena kofradi zaharrean eta nazionalistena pentsaten dut oraintxe dagoen lekuan. Mundakan ere bi egoten ziren, bat San Pedro kofradia orain jubilatuen hori eta dagoena eta, hemen geure etxearen behean egoten zen beste bat, Santa Katalina kofradia.
Ber.: kofrái - kofraidxe
Ond.: kofrai - kofraxe
Dok.: Azk. -

kofre - kófrie
Lok.: 4A, 5A, 15B, 16A, 29A
Kat.: iz.
Def.: "alcatraz". D. hegoak zabalduta brasa betekoa da, ez da hain handia baia hego luzeak dauzka. Zaharra denean hego zuriak eukitzen ditu eta punta beltzak, gaztea denean gris antzera egoten da. Asko jaten duenari ere esaten zaio.
Zit.: ño! kofripaiño gedxau dxate su!
Ber.: kófra - kófrie
Lek.: kopla - koplia
Ond.: kofre - kofri
Dok.: Azk. Kofra (B-b), cofre, ave marina grande que se zambulle echándose de lo alto.

koidxidu
Lok.: 9A
Kat.: ad.
Def.: D. batu, buietara txikota batzea edo tximinoitan tragolera batzea esate baterako.
Ber.: koidxidu
Lek.: koidxiu
Ond.: koxiu
Dok.: Azk. Koidxidu (B-l). (V. Koiu.) KOIU (B-a), coger. En B-l se concreta su variante KOJIDU a significar el acto de recoger los aparatos de pesca.

kokótx
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: D. lebatza eta makalloaren bizarra.
Enz.: D. kokotxak beti jan dira saltsa berdean nahi albardata.
Ber.: kokotx - kokótxak

Ond.: bixarra(k) a.
Dok.: Azk. Kokotxa (B-b), barbadilla de la merluza.

kolaidxo - kolaidxue
Lok.: 1A
Kat.: iz.
Def.: "colayo", *galeus melastomus*.
Ber.: itxuki - itxukidxe
Lek.: koladxo - koladxua
Ond.: kolaxo - kolaxu
Dok.: Azk. KOLAIO 2º (B-l), colario, un pez sin escama, con piel, que se enrosca al aparejo como una culebra.

kolanegra - kolanegrie
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: *oblada melanura*?
Ber.: popamiento, popamento
Lek.: bustanbaltza a.
Ond.: bustenbaltx - bustenbaltxe
Dok.: Azk. -

kólo - kólue
Lok.: 2A, 2B, 34B
Kat.: iz.
Def.: D. perloia.
Sin.: perloye, kukutza
Dok.: Azk. KOLO : 1º (B-mu), trigla golondrina, cierto pez rojizo, de cabeza desproporcionadamente grande.

kólla - kóllie
Lok.: 37B
Kat.: iz.
Def.: "colla". D. taldea, enbarkazioa datorrenean eurek deskargaten dute arraina eta abar.
Enz.: D. Ondarrun ere badaukazu koila.
Dok.: Azk. -

komandantzi - komandantzidxe
Lok.: 33B, 38A
Kat.: iz.
Def.: "comandancia".
Dok.: Azk. -

kondensadora a.
Lok.: 35B
Kat.: iz.
Def.: "condensador".
Dok.: Azk. -

konfesonaidxo - konfesonaidxue
Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: D. "caseta confesonario". Baporetan lema kasetaren barruan joaten zen.
Dok.: Azk. -

konjelador - konjeladorak
Lok.: 31B
Kat.: iz.
Def.: "barco congelador".
Dok.: Azk. -

konkán
Lok.: 29A
Kat.: adlag. Egon.
Def.: dudazkoa, erdibidekoa. Osasunagaitik, eguraldiagaitik eta abar esaten da.
Dok.: Azk. -

***konpañe (konpañerik, konpañian) - konpañie**
Lok.: 29B, 36A
Kat.: iz.
Def.: "compañía". Izurdekin ibiltzen zenean egun baterako erkideak izaten ziren enbarkazioak.
Ber.: konpañe
Lek.: konpañi
Ond.: konpañe
Dok.: Azk. -

konpás - konpasa
Lok.: 9B, 10A, 33B
Kat.: iz.
Def.: "brújula".
Ber.: konpasa a.
Ond.: konpas - konpasa

Dok.: Azk. -

konpresor - konpresorak
Lok.: 9B
Kat.: iz.
Def.: "compresor". D. motorretan motorrak arrankatekoak.
Ber.: konpresora
Dok.: Azk. -

***konserba - konserbie**
Lok.: 32B
Kat.: iz.
Def.: "conserva".
Enz.: D. Mundakan atxina Posadan egoten zen arrainaren konserbarako fabrika.
Dok.: Azk. -

kóntra - kóntrie 1.
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: D. botabera trinkata eukitzeko bere puntatik baino metro bat beheragotik aurrera doan txikota, ez dadin ibili batera eta bestera.
Ber.: kóntra - kontrak
Dok.: Azk. -

kóntra - kóntrie 2.
Lok.: 36A
Kat.: iz. Emon.
Def.: amarrata dagozen barkuek elkarri ematen dioten txikota. D. atzetik eta aurretik ematen da.
Lek.: burrua a.
Dok.: Azk. -

kontragilla - kontragillie
Lok.: 3A, 7B, 35A
Kat.: iz.
Def.: D. gilla da kanpokoa, barrutik daroa kontragilla, han doaz lotuta armazoiak.
Ber.: kontragille a., kontragillie a.
Lek.: kontragillia a.
Ond.: kontragilla - kontragilli
Dok.: Azk. -

kontraixo - kontraixue
Lok.: 10A, 34A
Kat.: iz.
Def.: D. atxina lebatzetan amu bakarrarekin ibiltzen zenean lebatzari tripa mandan kentzen zitzaion haragi mehea.
Enz.: D. sarritan iminten zen kontraixoa amuan pelenkaren ondoan edo berdekiaren ondoan. Gauza gozoa da.
Ber.: kontraixo - kontraixue
Dok.: Azk. Kontraserru (B-mu), raja que se corta a la merluza para que sirva de carnada.

kontrakaela a.
Lok.: 3B, 6A
Kat.: iz.
Def.: D. kubertaren errez urteten duten armazoiak.
Ber.: kontrakaela a.
Ond.: kontrakaela a.
Dok.: Azk. -

kontramaixo
Lok.: 9A
Kat.: iz.
Def.: D. "contramaestre". Arrantzaleen nagusia barruan.
Sin.: sokie
Ber.: kontramaixue a.
Ond.: kontramaxu a.
Dok.: Azk. Kontramaisu 2º (Bc, G), contramaestro en los buques.

kontrapúntie a.
Lok.: 9B, 30B
Kat.: iz.
Def.: D. botaberatik hiru apaiu barik lau erriaten direnean esaten da *kontrapuntie*: puntie, kontrapuntie, erdikue ta berrela. Punta baino braza bete beherago edo.
Ber.: kontrapunte
Dok.: Azk. -

***kontraseña - kontraseñie, kontraseñak**
Lok.: 26A, 37B
Kat.: iz.
Def.: "contraseña".
Enz.: D. tximinian eroaten zuten baporek, lagunak ezagututeko.

Dok.: Azk. -

kontraseñero
Lok.: 23B, 35A
Kat.: iz.
Def.: D. señeroen kontrakoak, señeroekin erabagiak eztabaidatu zitzaketenak.
Oha.: Bermion esan didatenez kontraseñeroak ordezkoak dira besterik barik, ez zen sortzen eztabaidarik.
Dok.: Azk. -

korál - korala
Lok.: 14B, 16B, 17B
Kat.: iz.
Def.: "coral".
Sin.: ondoko arbolie
Ber.: korala a.
Lek.: korala a.
Dok.: Azk. -

korañeta - korañetie
Lok.: 3B
Kat.: iz.
Def.: "potera". D. tximinoiak atrapateko dira. Begianditakoak handiagoak dira.
Ber.: koriñetie a.
Lek.: koraña a.
Ond.: korañe a.
Dok.: Azk. KORAIN (B-l, G-ori), koraiñeta (B-mu) : 1º arponcillo, jibionera, pieza de plomo con que se pescan los calamares.

kordá - kordie
Lok.: 10B
Kat.: iz.
Def.: D. palangrea.
Ber.: kordá - kordie
Lek.: korda - kordia
Ond.: korda - kordi, kordak
Dok.: Azk. -

kordel - kordela
Lok.: 10A, 30B, 37A
Kat.: iz.

Def.: "cordel".
Enz.: D. atxina lebatzetako kordela egoten zen. Baita iminten ziren kordelak besegutako eta papardotako buietan. Gero etorri ziren pitak eta nailonak eta, kordelak akaba dira.
Ber.: kordél - kordela
Dok.: Azk. Kordel (AN-b, Bc, Gc), cuerdas de pescadores.

KORDÉL FÁLTAUE a.
Lok.: 29A
Kat.: adj.
Def.: pertsona okerra.
Zit.: kordel faltaue da ori
Sin.: txiko faltaue, trabeseko panela
Ber.: kordel faltaue a.
Dok.: Azk. -

KORDEL IGARRAK a.
Lok.: 10A, 24A, 34A
Kat.: iz.
Def.: lebatzetako erabiltzen ziren kordelak.
Enz.: D. errekaren kontrako arbola bati azala kendu, matxaka eta egosi egiten zen kobrezko galdaretan tinta egiteko. Botiletan gordeten zen eta gero tinta horrekin egiten ziren kordelak igartu. Horiek behar handiak izaten zirenez hasi ziren gero blaka ematen, hori izaten zen kordelaren kanaltxuak tapateko, ur gutxiago hartzeko honek eta hola nasaiago ibiltzeko.
Dok.: Azk. -

LEBATZ-KORDELAK, LEBATZETAKO KORDELA a.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: begitu *kordel igarrak*
Sin.: kordel igarrak
Dok.: Azk. -

kordeleidxe - kordeleidxe
Lok.: 25B
Kat.: iz.
Def.: D. subilak, hariak, txikotak eta horiek erosten joaten zen denda.
Dok.: Azk. -

kordero - korderue
Lok.: 18B

Kat.: iz.
Def.: "cordero". D. itsasoan ikusten diren zuritasunak.
Zit.: korderoripestako
Sin.: ardidxe
Ber.: bekereka
Dok.: Azk. -

koreano - koreanue
Lok.: 7A, 27A
Kat.: iz.
Def.: D. burbinaren antzekoa baia txikia, eskama eta dena antzekoa dauka.
Enz.: D. jaten da. Arrastan euki ditugu etxadak ederrak, orain hogei bat urte edo gehitxuago hemen ere atrapeten zen. Ez dakit bermiotarrek *koreanue* bokar baltzari deituten dioten.
Ber.: koreanue a.
Dok.: Azk. -

korkoi - korkoye
Lok.: 1A, 9A, 27A, 35B
Kat.: iz.
Def.: D. lasunaren antzekoa, mantxa hori bi dauzka zakatz ondoan eta eskua pasata koipea legez dauka.
Ber.: korkói - korkoye
Lek.: ur-iasuna a.
Dok.: Azk. KORKOE, korkoi (B-b, G), pez parecido al muble, sus agallas tienen color de maíz duro.

korona - koronie
Lok.: 6A, 11A
Kat.: iz.
Def.: "corona". Arrastako sarean.
Ber.: korona - koronie
Dok.: Azk. -

korrastu
Lok.: 8A
Kat.: ad.
Def., Oha.: begitu *korrostu*
Ber.: korrosta
Dok.: Azk. -

korredera - korrederie

Lok.: 13B, 14B
Kat.: iz.
Def.: D. millak markatekoa. Atzetik erloju bat eta txikot bat helizearekin, martxan doanean enbarkazioa helize hura doa buelta-bueltaka eta erlojuan markaten du. Orain usa ere ez da egiten.
Ber.: korredera - korrederie
Dok.: Azk. -

***korrelatiba - korrelatibie**
Lok.: 36B
Kat.: iz.
Def.: D. bidaia guztia egiteko iminten diren errebolu zioak, marka.
Ond.: korrelatiba - korrelatibi
Dok.: Azk. -

korrelatiban
Lok.: 36B
Kat.: adlag.
Def.: errebolu zio batzutan egin bidaia guztia
Ond.: korrelatiban
Dok.: Azk. -

korremusa - korremusie
Lok.: 5A, 35B
Kat.: iz.
Def.: "cornamusa". D. obramuertan doa tronko baten modura, txiketa amarraten da bertan, herrira kasu baterako. Lau eukitzen dira, babor-estibor. Askok eukitzen du erdian beste bat brageroa trinkateko edo.
Ber.: korremuse - korremusie
Dok.: Azk. -

korrenta a.
Lok.: 6B, 30A, 30B
Kat.: iz.
Def.: "corriente".
Ber.: korronta a.
Lek.: korriente - korrientia
Ond.: korrenta a.
Dok.: Azk. -

korrentaso - korrentasue

Lok.: 25A
Kat.: iz.
Def.: D. korrenta gogorra.
Ond.: korrentasu a.
Dok.: Azk. -

kórri
Lok.: 15A, 28A
Kat.: iz.
Def.: "velocidad".
Sin.: martxa, andana
Ber.: kórri
Dok.: Azk. -

korrosal - korrosala, korrasala
Lok.: 8A, 25B, 37B
Kat.: iz.
Def.: begitu *korrostol*
Oha.: begitu irudietan
Dok.: Azk. -

korrostol
Lok.: 6B, 25B
Kat.: iz.
Def.: D. oholtxu bat saiarik saiara pasateko ura.
Ber.: korrostokola a.
Ond.: ospala a.
Dok.: Azk. Korrostokol (B-b), paleta de madera con que se quita el agua de las lanchas.

korrostu
Lok.: 6B
Kat.: ad.
Def.: D. saia batetik bestera korrosalaz egitea.
Ber.: korrastu
Dok.: Azk. -

kortxo - kórtxue
Lok.: 6A
Kat.: iz.
Def.: "corcho".
Ber.: kórtxo - kórtxue
Ond.: kortxu a.

Dok.: Azk. -

kosiñe - kosiñie
Lok.: 17A
Kat.: iz.
Def.: "cocina".
Sin.: **eskatza**
Ond.: kosiñe - kosiñi
Dok.: Azk. -

kosiñero - kosiñerue
Lok.: 26B
Kat.: iz.
Def.: "cocinero".
Enz.: D. besteak lez ibiltzen zen gero arrantzan.
Dok.: Azk. -

kosta - kostie 1.
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: :"costa".
Ber.: kosta
Lek.: kostia a.
Ond.: kosta - kosti
Dok.: Azk. Kosta 2º (c, ...), costa (del mar).

kosta 2.
Lok.: 26B, 31A, 31B
Kat.: iz. Ibili.
Def.: "patron de costa"ren laburpena.
Zit.: ibil naitxen, or e. kosta / Campesino Campeadoran asi naitxen, kosta
Dok.: Azk. -

kostadue a.
Lok.: 8A
Kat.: iz.
Def.: D. "costa(d)o". Enbarkazioarena.
Ber.: kostadue a.
Dok.: Azk. -

kostera - kosterie
Lok.: 10A, 18A, 20A

Kat.: iz.
Def.: "costera".
Ber.: kostera
Ond.: kosteri a.
Dok.: Azk. -

kosterres
Lok.: 3A, 32A, 33A
Kat.: adlag.
Def.: D. kostaren errez joatea, kosta bistan dela.
Ber.: kosterres
Ond.: kostarres
Dok.: Azk. -

kostura - kosturie
Lok.: 18A
Kat.: iz.
Def.: D. txikotak dauzkan hiru edo lau hariekin egiten da.
Ber.: kosture - kosturie
Lek.: kostura - kosturia
Dok.: Azk. -

KOSTURA LABURRA a.
Lok.: 18A

KOSTURA LUSIE a.
Lok.: 18A
Kat.: iz.
Def.: D. biribilean lotzen da.
Ber.: kosture lusie a.

kotá - kotie
Lok.: 30A
Kat.: iz.
Def.: D. alanbraren bihurra.
Oha.: cf. bidxorra
Ber.: kotá - kotie
Ond.: *kota - koti, kotak
Dok.: Azk. KOTA 3º (B-l-mu-ond), seno u ojete de cuerda o alambre no bien estirado.

kotorrue a.
Lok.: 27B, 29A, 32B

Kat.: iz
Def.: "cormorán".
Oha.: Mundakakoa hau dela dino. Bermion *potorrue*. Bermiokoa esaten du gehiago.
Ber.: potorro - potorrue
Dok.: Azk. 2ª Kotorro (B-ond), pitorro, gaviota negra.

***kresál - kresala**
Lok.: 9A, 24A
Kat.: iz.
Def.: "agua de mar".
Ber.: kresala, krisela a.
Lek.: kresala a.
Ond.: krisala a.
Dok.: Azk. KRESAL : 1ª (B-l), agua de mar.

kriél - kriela
Lok.: 3A, 25A
Kat.: iz.
Def.: "palangrera".
Oha.: begitu irudietan
Ber.: kriela a.
Lek.: treotzara - treotzaria
Ond.: treotzarak a.
Dok.: Azk. Kriel (B-b). Var. de KRIAL. KRIAL (B-b), tabla, cesto para conducir palangre o aparejo de besugo.

kriela plamie
Lok.: 29A
Kat.: ad.
Def.: "preparar el terreno, arreglar un asunto".
Oha.: orain ez dela esaten dino.
Dok.: Azk. -

kronografue a.
Lok.: 30B, 38A
Kat.: iz.
Def.: "cronógrafo".
Dok.: Azk. -

kronometrue a.
Lok.: 38A
Kat.: iz.

Def.: "cronómetro". Merkantean.
Dok.: Azk. -

kruseta - krusetie
Lok.: 11B, 20A
Kat.: iz.
Def.: "crucета". D. merkanteetan paluak eukitzen duen trabesa.
Enz.: D. hemen ez da usaten, hemengo paluak artezean dagoz.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: kruseta - krusetie
Dok.: Azk. -

kuárta
Lok.: 10A
Kat.: iz.
Def.: "cuarta". D. hogeitamabi kuarta dauzka konpasak.
Dok.: Azk. -

kubert - kuberta
Lok.: 6A, 20A
Kat.: iz.
Def.: "cubierta".
Ber.: kubierta a.
Ond.: kubierti a.
Dok.: Azk. -

kukútz - kukutza
Lok.: 4A
Kat.: iz.
Def.: D. perloia.
Enz.: D. kostan ere atrapaten dira.
Sin.: kolue, perloye
Ber.: kukútz - kukutze
Lek.: kukutx - kukutxa
Dok.: Azk. -

KUKúS BALTZá a.
Lok.: 9A, 9B
Kat.: iz.
Def.: "perlón" (ez gorria), eutrigia gurnardus. D. beltza edo berdeska gehiago egiten da, tripa zuria eta lepoa eta hori beltza.
Enz.: D. arrastan ere gutxi atrapaten da hori. Gozoa da erreta, koipea dauka.

Sin.: perloi baltza
Ber.: kukus baltza a.

kurrukan - kurrukana(k)
Lok.: 2B, 5B, 18A
Kat.: iz.
Def.: "curricán". D. kazako apaiua.
Ber.: kurrukana a.
Dok.: Azk. KURRIKAN (B-l-mu), cierta cuerda delgada y fuerte de que se valen los pescadores; no es precisamente el aparejo mismo llamado "curricán".

kurruluntxoye a.
Lok.: 5A
Kat.: iz.
Def.: D. portuan ibiltzen den txori txikitxua, moko luzea.
Enz.: D. eguraldi ederra egon arren kuiii kuii asmaten baduzu euria da gainean.
Dok.: Azk. -

L

lanbás - lanbasa
Lok.: 6B, 8A, 12A, 21B
Kat.: iz.
Def.: "lampazo". D. "lambaso". Panelak eta enbarkazioa garbitutekoa.
Enz.: D. lanbasak orain erosi egiten dira baia lehen bakoitzak berak egiten zuen, palu baten trapuak josita untzekin.
Oha.: begitu irudietan
Ber.: lamasa a.
Lek.: lanbasa a.
Ond.: lanbasa a.
Dok.: Azk. LANBAS : 1º (B, ..., G,...), lampazo, estropajo grande hecho de retales de paño, que sirve para fregar los costados y cubierta de lanchas y otras embarcaciones.

***langosta - langostia**
Lok.: 2A
Kat.: iz.
Def.: "langosta".
Ber.: langosta - langostie
Lek.: langostia a.
Ond.: langosta - langosti

Dok.: Azk. -

***langostiño - langostiñue 1.**
Lok.: 2A, 19A, 37A
Kat.: iz.
Def.: "langostino". D. ganbaren antzekoa da baia ilunagoa eta handiagoa, ganba baino hobea.
Ber.: langostiño - langostiñue
Ond.: langostiño - langostiñu
Dok.: Azk. -

***langostiño - langostiñue 2.**
Lok.: 37A
Kat.: iz.
Def.: "cigala".
Dok.: Azk. -

***lanprói - lanproye**
Lok.: 3A, 29A, 32A
Kat.: iz.
Def.: "lamprea", *petromyzon marinus*. D. txikia da.
Enz.: enbarkazioari pega egiten zaio. Arrainari ere pega egiten zaio eta odola txupaten dio, lebatzak ere eukiten du. Atunetako txarra izaten da, kendu egin behar izaten diote enbarkazioari, erramu batekin edo txist batekin edo.
Ber.: lánproi - lanproye
Lek.: lanproya a.
Ond.: lanpre - lanpri
Dok.: Azk. -

laño gorri, alxe edo euri
Lok.: 20A
Kat.: e.
Dok.: Azk. -

lapá - lapia
Lok.: 2A, 18B
Kat.: iz.
Def.: "lapa".
Ber.: lapa
Ond.: lapa - lapi
Dok.: Azk. LAPA 2º (B, G), lapa, cierto molusco.

lapa-sorri - lapá-sórridxe
Lok.: 13B
Kat.: iz.
Def.: D. haitzean elkarren gainean denak pegata egoten diren lapa txiki-txikitxuak.
Enz.: D. enbarkazioa ez bada garbituten pega egiten zaizkio.
Dok.: Azk. -

lapix-plomue a.
Lok.: 7B
Kat.: iz.
Def.: D. makinetan ematen den hauts gris bat.
Enz.: D. atxina enbarkazioari ematen zitzaion azpian blaka eta txalupetan eta gero asko korriduteko ematen zitzaion *lapix-plomue*. Makinetan ere usaten da tuerkentzat eta.
Ber.: lapix-plomue a.
Dok.: Azk. -

lárga!
Lok.: 22A, 23B, 30A
Kat.: ex.
Def.: patroiak sarea botateko ematen duen agindua.
Ond.: larga!
Dok.: Azk. Larga (B-l,..., BN), soltar, librar.

***largada - largadie a.**
Lok.: 17B
Kat.: iz.
Def.: D. sarea botatea.
Dok.: Azk. -

largadan
Lok.: 23B
Kat.: adlag. Joan.
Def.: D. "largando". Arrastan sarea bota eta elementuak erriaten zoazenean.
Dok.: Azk. -

largando
Lok.: 26B
Kat.: adlag. Joan.
Def.: "largando".
Zit.: dxun giñen largando

Dok.: Azk. -

largetera
Lok.: 8A
Kat.: adlag.
Def.: D. popadan barik apur bat mandarago, kostadurago joatea.
Ber.: largetera
Dok.: Azk. -

lasdegi - lasdegidxe
Lok.: 17B
Kat.: iz.
Def.: D. "las de guía".
Ber.: lastéi - lasteidxe
